



BIZKAIKO TXAPELKETARIK DURANGALDEKOENA

Zapatuan, eskualdeko izen handiko lau lagunek parte hartuko dute Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean. Aitor Bizkarra, Gorka Pagonabarraga eta Txaber Altube bertsolariak txapela eskualdera ekartzeko lehiatuko dira. Bestalde, Arantza Plazak txapela jantziko dio zortzi finalisten artean garaile denari. Azken lehia Casillan jokatu da, 17:00etan. / 2-3

Irati Egurenak irudiz jantzi ditu 'Su txikian' egindako hausnarketak

Ilustratzaile durangarrak Olatz Mitxelena idazleagaz ondu du umeentzako liburua. 1545 argitaletxeagaz kaleratu dute / 18



**Maluta jaialdiak
nazioarteko zirkuko
artisten topaleku
bihurtuko du San
Agustin kulturgunea** / 19

"Lehenengo egunetik ondo integratu naiz Lugo taldean, eta pozik nabil"

Iker Unzueta Galiziako CD Lugo taldera batu da aurren eta oso maila onean dabil. Oraingoan, bost gol sartu ditu / 20



Deñe Izaga / Aritz Maldonado BILBO Abenduaren 20ko finalean erabakiko da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako txapela nork eramango duen eta Durangaldera etorriko den ala ez. Jada erabakita dagoena da Durangaldean bizi den lagun batek jantziko diola txapela irabazleari, finalean punturik gehien batuko duen bertsolariari. Hain zuzen ere, Berrizen bizi den Arantza Plaza Zamorak (Gizaburuaga, Bizkaia, 1958). Txapela eskualdera etortzeko aukera "handia" dela nabarmendu du Plazak, eta beragaitik balitz finalista bakoitzari txapel bat emango liokeela.

Plaza Bizkaiko Bertsozale Elkarteko bertsolaritza irakaslea izan da hamarkada bi baino gehiagoz. Hezkuntza arautuan, bertsolaritza gazteei helarazten dien Mundu Bat bertso programan ibili da. 2004an hasi eta 2022ra arte aritu da horretan, erretiroa hartu arte. Horrez gainera, bertsolaritzari loturiko hainbat dokumentazio lan ere egin du, eta makina bat lan boluntariotan ere ibili da. Hain zuzen ere, elkarteak inurri lan hori eta gazteak bertsolaritzara eta euskarara gerturatzeko egin duen ekarpena ere nabarmendu gura izan ditu. Elkartean erretiroa hartu duen lehenengo langilea ere bada Plaza. Profesionalki ez ezik, Plazak pertsonalki ere lotura estua du bertso munduagaz; izan ere, Xabier Amuriza du bikotekide, eta Miren Amuriza alaba.

Irabazleari txapela jantzeko proposamena 'harriduraz' hartu zenuela esan duzu.

Inoiz pentsatuko ez nuen zeregina eskaini zidaten eta benetan harriduraz hartu nuen propo-

satu zidatenean. "Zuretzat hau xe eta hauxe dakargu", eta zer erantzun jakin barik geratu nintzen, baina, bat-batean, elkartearen inguruan bizitako momentu ugari etorri zitzaizkidan burura, nire ikasleak, beti ondoan izan dudana lantaldea, bertso saioak... Txapelketa garaian lan desberdin asko egin behar izaten da eta hori guzti hori ere etorri zitzaizkidan burura. Eta orduan sentitu nuen, "nik hau egin egin behar dut". Hor ez nuen neurtu horrek atzetik eskatu didan lan guztia, ez da behintzat ohituta nagoen lana, baina une batez ere ez naiz damutu "bai" erantzuteaz. Hau oso polita da guretzat. Txapeldun bati txapela neuk ipintzeak, neu ibili naizen arloan, zelanbait esateko, erakusten du nire ekarpena egin dudala. Esate baterako, umetatik ezagutzen ditut finalera heldu diren Durangaldeko hiru bertsolari gazteak. Niretzat bertso eskolako ikasleak izan dira beti, bertso eskolako zaparroak, eta begira, finalera heldu dira aurretik! Eta batek daki, baliteke euren bati jantzea txapela. Ederra litzateke! Horrek harro sentiarazten nau. Esango nuke finala emoziotik biziko dudala, batez ere. Opari ederra eman didate eta oso eskertuta nago Elkarteari.

Elkartean egindako inurri lan horri aitortza ere bada, zelanbait.

Nirea ere baden neurrian, Elkartean boluntario lana egin izan dut beti. Txapelketetan, kasurako, eta beste zeregin askotan ere bai. Beraz, zer gutxiago ekarpen hori egitea baino. Eta, nire lanbidea ere izan denez, aitortzak bietatik du. Horregaitik diot Elkartea neure ere sentitzen dudala.



Arantza Plaza Zamora.

"Finalistetariko bakoitzari txapel bat ipiniko nioke, baina ezin da"

ARANTZA PLAZA ZAMORA

Arantza Plazak jantziko dio txapela Bizkaiko Bertsolari Txapelketako irabazleari Bilboko Casillan; 20 urte baino gehiagoz aritu da bertsolaritza gazteenei helarazten

Zapatuko finala emozioz biziko duzula esan duzu. Zelan ikusten duzu finala?

Oso lasai bizi izango dut. Bertsolari guztiak lagun ditut eta denak maite ditut. Bertsozaleetarik asko ere ezagutzen dut,

"FINALEKO ZORTZI BERTSOLARIAK DITUT LAGUN ETA DENAK MAITE DITUT"

urte luzez elkarregaz ibili garrelako saiorik saio. Eta jende berria ere ezagutu dut. Beraz, emozio handiz biziko dut eguna. Beste txapelketa batzuetan larriago egon izan naiz, etxekoek parte hartzen zutelako, besteak

Zortzikotea finalerako prest

Bilboko Casilla eltze bat izango da zapatuan. Izan ere, 4.000 sarreratik gora salduta daude jada bertan jokatu den Bizkaiko Bertso Txapelketako finalerako. Zortzikote finalistaren artean, Durangaldeko hiru bertsolari daude, txapela eskualdera ekartzeko helburuagaz; bertan kantatuko dute Txaber Altube eta Aitor Bizkarra abadiñarrek

eta Gorka Pagonabarraga durangarrak. Altubek lehenengo Bizkaiko finala izango du biharkoa, baina, hala ere, lehiatzeko asmoz taularatu duela aurreratu du: "Orain artean ez dut lortu txapelketetan dibertitzea, baina aurtengoan gozatu ahal izan dut"; Bizkarrek eta Pagonabarragak hirugarren finala dute zapatukoa. "Ez dut

uste finalak bertsoez gozatzeko aukerarik onena direnik, ez behintzat bertsolariontzat. Jokora joateko eta onenak emateko asmoz nator", esan du Bizkarrek. Pagonabarraga ere gogotsu helduko da hitzordura. "Txapelketak hotz harrapatu ninduen hasieran, baina finala hurbildu ahala ilusioa pizten ari zaidala onartu behar dut", adierazi du. Eurez gainera, Aitor

Etxebarriazarragak, Jone Uriak, Onintza Enbeitak, Oihana Bartrak eta Xabat Gallettebeitiak egingo dute bertsotan.

Bizkaiko Bertsozale Elkarteko kideak pozik daude orain artean txapelketak izan duen ibilbideagaz. "Antolaketa eta parte hartzea oso onak izan dira, eta Bertso Eskolan ere prest agertu dira une oro laguntzeko", azaldu dute.



Zortzikote finalista.



beste. Baina aurten gozame-
nez eta emozioz bizi izango
dut, batez ere. Eta harrota-
sunez ere bai, nire lana
eskertzeko motibo bat eman
badut zeozer ondo egin du-
dan seinale delako. Oso es-
kertuta nago aukera hau
eman didatelako.

**Ausartzen zara pronostikoa
egin eta txapela Durangaldera
etorriko den esatera?**

[Barrez] Zortzi bertsolariak
ditut lagun eta denak mai-
te ditut; finalistetarikoa
ba-koitzari txapel bat ipiniko
nioke, baina hori ezin da.
Badaukat faborito bat, bai,
baina gurago dut txapela
ipintzean esatea "hau da"
edo "hau izan da". Egia esan,
aukera handia ikusten dut
txapela Durangaldera ekar-
tzeko.



D. I. / A. M. BILBO

Aitor Bizkarra, Gorka Pagona-
barraga eta Txaber Altube ber-
tsolariak gerra emateko asmoz
igoko dira oholtzara. Txapela
jasotzen duena finalistetako
edozein delarik ere, Arantza
Plazaren eskuetatik jasotzea
"ohore bat" izango dela nabar-
mendu dute.

**Zer gorputzaldigaz heltzen zarete
finalera?**

Aitor Bizkarra: Abestu ditudan
hiru saioak irabazita nator eta
horrek konfiantza handia ematen
dit. Aurreko saioetan jau-
sialdixoren bat badaukazu,
adibidez, gehiago kostatzen da
gero konfiantza hori berresku-
ratzea. Baina aurreko saioak
irabazita gehiago sinesten duzu
zeure buruarengan. Hori bai,
gozamina ez da nahitaez bidea
emaitza on bat lortzeko. Goza-
mena gero etorri daiteke. En-
tzuleak, bai, gozatuko du, baina
norberak, ondo egiteko, sufritu
egin behar du apur bat. Niri
behintzat horixe gertatu zait
txapelketan zehar. Ez dut sufritu
sufrizearren; kontzentrazioak,
tentsioak eta burua zukutu behar-
rak dakarte sufrimendu puntu
hori. Eta horretara joango naiz
finalera. Sufritzeko gaitasun
hori izan gura dut finalean, oz-
topoak gainditzeko, horrek
bertsotan ondo egiten laguntzen
didalako. Bertsotan orain arte
ibili naizen moduan ibiltzea
gura nuke. Edo hobeto, jakina.

Gorka Pagonabarraga: Egia
esanda, ez dakit ondo zelan na-
torren. Sentsazioa dut benetan
nagoen baino tristeago agertu
naizela, prentsaurrekoan ere
bai, baina ez da horrela, plaza
pribilegiatu batean kantatuko
dugulako. Hori bai, txapelketak
mentalizatu ezinik edo erritmoa
hartu ezinik harrapatu nau.
Hala ere, eutsi diogu eta behin
hemen egonda, Arantzaren ber-
bak entzunda, ahalik eta saiorik
onena egiteko ilusioa sartu zait,
hainbeste jenderen aurrean nor-
berak esateko dituenak esatea
delako bertsotan egon daitekeen
plazerik handienetarikoa bat.
Azken egunetan [elkarriketa
abenduaren 10ekoa da] gorpu-
tzaldi gorabehetsuak izango
ditudalakoan nago, errusiar
mendiaen antzera, baina esango
nuke puntu onean helduko nai-
zela finalera.

**Txaber, hainbat ediziotan ateetan
geratu eta gero, lehenengo finala
duzu hau.**

"Gozamina ez da nahitaez bidea emaitza on baterako"

AITOR BIZKARRA, GORKA PAGONABARRAGA ETA TXABER ALTUBE BERTSOLARIAK
Bizkarrak eta Pagonabarragak hirugarren finala dute; Altubek lehenengoa; lehiatzeko
gogoz eta ilusioz daude, eta pozik hirurek elkarregaz kantatuko dutelako finalean



Aitor Bizkarra, Gorka Pagonabarraga eta Txaber Altube.

"GUK GURA DUGUN SAIOA EGINEZ GERO, IRABAZLEAK LAN HANDIA EGIN BEHARKO DU BERTSOTAN"

Txaber Altube: Pozik nago.
Hala ere, txapelketa niretzat ez
da finalera ailegatuta amaitzen.
Arduraz nator finalera, badaki-
dalako zer den ateetan geratzea,
eta hor geratu direnekiko erres-
petuz ere. Ez nator txakurkume
baten jarreragaz, edozer gerta-
tuta ere emozionatzeko prest,
final on bat egiteko asmoz baino.
Txapelketa polita egiten nabil
eta horrela jarraitzea gura nuke.
Lehenengo finala da baina ma-
kina bat txapelketatan parte
hartutakoa naiz; ateetan ere
geratu izan naiz, eta motibatuta
nator.

**Lagunak zarete eta urteak dara-
matzazue elkarregaz bertsotan.
Bertsokide ala lehiakide izango
zarete gehiago zapatuan?**

A. B.: Biak lagun eta bertsoki-
de ikusten ditut, objektiboki
lehiakideak ere badiren arren.
Baina guretzat lehiakideak ez

dira traba bat, ez dira bota
beharreko zeozer. Bertsotan
dialogo bat eraiki behar da,
eta, beraz, elkarri lagunduta
zeozer eraiki beharrekoa elka-
rregaz. Beraz, lehiakideak bai
baina bertsokideak ere bai. Ez
da kontraesankorra bertsotan,
eta gutxiago Gorkagaz eta Txa-
berregaz.

G. P.: Dena esanda utzi duzu.
Aitorrek dio ez dela gazte senti-
tzen, baina nik 25 urte ditut, eta
arlo horretan oraindino zeresana
badudala uste dut (barrez).
Ez dut, adibidez, 45 urteko batek
kantatuko duen berdina esango.
Hortik ere abestu gura dut. Bes-
talde, ofizio on batek albokoari
entzutea eskatzen du, eta ahalik
eta elkarriketarik onena sortzea;
beraz, biek elkarregaz egindako
bidea da.

T. A.: Ni azkena naiz finalean
sartzen, baina ez gazteena; beraz,
horrek esan gura du ez dela
gazte berririk sartu. Horrek
pena emango die batzuei, baina
horri eskerrak sartu naiz ni
finalean, eta ni neu pozik nago,
jakina (barrez). Hauek biak
oholtzan kide izateak segurtasuna
eta poza ematen dizkit. Hirurok
elkarregaz egoteak ilu-

sioa ematen dit.

Abantaila bat izan daiteke?

T. A.: Bai. Ez bakarrik hobeto
kantatzeko, baizik eta ilusioa
egiten didalako finalean hiru
lagun egoteak. Horrez gainera,
oso ondo elkar ezagutzen dugu.
Gatx da gure artean bertsotan
elkarri sorpresak ematea, eta
badakigu ofizioa emanda elka-
rregaz bertsotan egiten.

**Arantza Plazak jantziko dio txape-
la irabazleari. Pronostikorik?**

A. B.: Arantza egotea ohore
handia da guretzat. Normalean,
bertso munduan ibilbide luzea
egindakoren batek jantzen du
txapela. Arantzak badu hori,
inongo zalantzarik barik. Ez
dakit gutakoren bati jantziko
dion, baina bere eskuetatik ja-
sotzea ohore handia litzateke.
Bestalde, finaleko ia %50 Du-
rangaldekoak gara; hortik au-
rrera, norberak egin ditzala
kontuak eta kabalak.

G. P.: Prentsaurrekoan Aran-
tzaren berbak entzunda emo-
zionatu egin naiz. Bizi osoan
inurri lan horretan dabilzane-
kiko aitortza bat egitea da, eta
hori oso polita da, azken finean.
Fokuek beti antzeko jendea
hartzen dute, fokupean gabil-
tzanok inurri lanean ibiltzea
zer den ere badakigun arren.
Eder-ederra iruditu zait eta
bere jarrera ere gustatu zait.
Pronostiko aldetik, ez dakit
[Txaberri begiratu dio]; presio
gutxiago dugula esango dut.
Hori bai, egunen baten txapela
Durangaldera ekarriko dugu.
Seguru! Baina ez dakit aurten
izango den ala ez. Ikusiko dugu.
T. A.: Egin gura dugun saioa
egitea lortzen badugu, irabazi
gura duenak lan handia egin
beharko du. Ni neu ez naiz pa-
seatza joango. Arantzari da-
gokionez, aitortza hau egitea
beharrezko ikusten dut, benetan
merezi duelako. Irabazten due-
nak irabazten duela ere, ohore
bat izango da txapela Arantzak
ipinitzea.



Jesica Ruiz zinegotzia, Arantza Maiztegi gizarte ekintzako teknikaria eta Iker Txertudi zinegotzia.

Gura bako bakardadean daudenentzako zerbitzua

Durango sei herritar gura bako bakardadean dauden herrikideei laguntzen hasiko dira urtarrilean. Akonpainamendu emozionalean lagunduko diete, sare komunitarioak sortzen. Zerbitzua erabili gura duten durangarrek zabalik dute eskaerak egiteko

Ekaitz Herrera DURANGO

Durango Udalak langabezian dauden sei herritar kontratatuko ditu gura bako bakardadean bizi diren herritarrei laguntzeko. Sei beharginetako bostek laguntzaile rola izango dute. Hau da, aurrez aurre esku har-

tuko dute bakardadean bizi direnekin, eta sare komunitarioak sortzen eta autonomia garatzen lagunduko diete. "Izan daiteke elkarteek antolatzen dituzten ekintzetara joaten laguntzea eta baten bategaz hartu-emanetan ipintzea. Azken

finean, beharginek sare komunitarioak sortzea eta akonpainamendu emozionalean laguntzea izango dute betebeharrak", azaldu du Arantza Maiztegi Durango gizarte ekintzako teknikaria. Horri guzti horri jarraipena egiteaz beste langile

bat arduratuko da, seigarrena. Horrek koordinatzaile rola izango du. Udalak zehaztu duenez, sei langileen profila "anitz" da. Batzuk nagusiak dira, migranteak beste batzuk, baina denek izendatzaile bat ageri dute: denak 45 urtetik gorako emakumeak dira.

Izena emateko aukera

Jesica Ruiz zinegotziak iragarri duenez, gura bako bakardadean dauden 18 urtetik gorako herritarrei lagunduko diete zerbitzuagaz: "Izan daitezke desgaitasunen bat dutenak, migranteak, helduak zein gazteak, gura bako bakardadeak adin guztietan eragiten du eta". Urtarrilaren amaieran aktibatuko dute proiektua, baina zerbitzua erabili gura dutenek dagoeneko zabalik dute eskaria egiteko epea. Nahikoa dute gekintza@durango.eus helbidera idaztea edo Adinekoen Zentroan (Astarloa) elkarteekin edo ikastetxeekin hartu-emanetan ipintzea.

Proiektua udalaren Enplegu Planaren zati da, Lanbideren bitartekaritzagaz kudeaturikoa. Lanbidek 75.000 euroko diru laguntza eman du, eta Durango Udalak 3.638 euro gehitu dizkio kopuru horri. Zerbitzuak sei hilabeteko iraupena izango du. Hala ere, Lanbideren hurrengo deialdian proiektua atzera ere martxan ipintzea aurreikusi du udalak.

"Kalitatezko osasun publikoa" eskatu dute

DOPak Osakidetzaren egoera "txarra" eta itxarote-zerrendak salatu ditu elkarretaratze batez

Jone Guenetxea DURANGO

DOPak, osasungintza publikoaren aldeko plataformak, elkarretaratzea egin zuen joan zen astean "Osakidetzak bizi duen egoera txarra" salatzeko. Osasun publiko oinarritzako eskubidea dela aldarrikatu zuten, eta, horrenbestez, ezin dela "funts putre pribatuetara zatitu edo saldu". "Urtero, Gabonetan eta udan, egoerak okerrera egiten duela ikusten dugu", esan zuten. Espzialistei dagokienez, urologian, Durangorako kontsulten heren bi "kendu" dituztela esan zuten, eta traumatologiako itxaronaldiak "urtebetekoak" izaten direla kritikatu.



DOParen elkarretaratzea. DOPA

Ipuin kontalariak eta dozenatik gora artisau Eixuren azokan

Azoka hilaren 21etik 23ra egingo dute, Andra Marian. Oihana Etxegibel ipuin kontalariak saio bi egingo ditu

Ekaitz Herrera DURANGO

Eixu artisauen elkarteak aukera apropos-aproposa eskainiko die opariak erostea pentsatzen dabiltzanei, Gabonen atariko azken erosketak egiteko. Elkarteko dozena bat artisau baino gehiago hiru egunez egongo dira, abenduaren 21etik 23ra, Durango Andra Marian. Aurkene Pagalday elkarteko kideak Durango Udaleko aurkezpenean azaldu zuenez, "diziplina askotariko artisauak" batuko dira, "beren sorkuntzak pasio handiagaz sortu dituzte-



Eixuren azoka bat.

nak", guztiak ere. Horien artean egongo dira zurezko apaingarriak, bitxiak, papergintza, zeramika, kandelak, arropa, poltsak, motxilak eta osagarriak. Pagaldayk artisautzari meretzitako "duintasuna" ematera deitu zuen, eta azokara joateko gonbita egin.

Ipuin kontalariak

Azokari bestelako tonua emateko asmoz, ipuin kontalariak egongo dira elizpean. Oihana Etxegibelek saio bi egingo ditu. Abenduaren 22an izango da bata, eta 23an bestea; biak 18:00etan izango dira. Gainerakoan, azokaren ordutegia honako hau izango da. Abenduaren 21ean egun osoan izango dute zabalik, 10:00etatik 20:00etara. Hilaren 22an eta 23an arratsaldez bakarrik, 16:00etatik 20:00etara.

EH Bilduk emakumeen kartzelak eragindako mina gogoratu du

Ekitaldia egin zuten zapatuan. Garrastatxuk emakumeek faxismoaren aurka jokatu zuten rola nabarmendu zuen

Maialen Zuazubiskar DURANGO

Durango EH Bilduk emakumeen kartzela gogoratu zuen joan zen zapatuan. Ekitaldian dozenaka herritar eta elkarteetako ordezkari batu ziren, eta Ima Garrastatxu bozeramaileak berba egin zuen amaieran. 36ko gerran eta ondoren faxismoaren aurka emakumeek izan zuten "ezinbesteko papera" nabarmendu zuen, "nahiz eta sarritan ezkutatu edo bigarren plano batean utzi gura izan den". Aurten 85 urte bete dira kartzela itxi zutela. 1939tik 1940ra egon zen zabalik.



Lore eskaintza egin zuten. EH BILDU



Telefonorako 'Gongo' aplikazioaren sortzaileak . GONGO

'Gongo' aplikazioa sortu dute opariak egin eta jasotzeko

Opariak egiteko eta jasotzeko modu tradizioanala "irauli" gura dute. Tokiko dendetako produktu edo zerbitzu zehatzak erosteko eta beste pertsona bati atoa bidaltzeko aukera eskaini gura diete erabiltzaileei. Erabilgarri dago Android eta iOS sistemetan

Ekaitz Herrera DURANGO
Durangoko herritar batzuek *Gongo* sortu dute, Bizkaiko merkatariei bezero berriak erakartzen eta dendak digitalizatzen laguntzeko helburuagaz. Opariak egiteko eta jasotzeko modu tradizioanala "irauli" gura dute tresna berriagaz, hau da, tokiko dendetako produktu edo zerbitzu zehatzak erosteko eta beste pertsona bati bidaltzeko aukera eskaini gura diete erabiltzaileei: "Taldea osatzen dugun pertsonen esperientzia pertsonaletatik sortu zen *Gongo*", azaldu du Mikel Lupiañez proiektuko zuzendariak. "Lagunak zerbaitetara modu erraz eta hurbilean gonbidatzeko

tresnaren baten falta igartzen genuen, eta ikusi genuen teknologia tresna indartsua izan zitekeela lotura horiek berreskuratzeko eta, aldi berean, gure auzoetako eta herrietako den-dei laguntzeko", azaldu du.
Hori horrela, aplikazioa sartzen direnek egitaspora batutako dendek katalogoa izango dute eskura, eta oparitzeko moduko esperientziak topatuko dituzte, izan gosari, artisau-garagardo, masaje edo liburu. Erabiltzaileak, ordainketa egin ondoren, QR kode bat jasoko du, eta QR hori whatsapppe bidali ahal izango dio oparia egin gura duen pertsonari. Onuradunak dendara

joan eta kodea erakutsi besterik ez du egin beharko.
Proiektuaren sustatzaileek jakinarazi dutenez, merkataria doan egon daitezke plataforman: "Ez dute komisiorik ordainduko salmenta bakoitzeko, eta produktuaren edo zerbitzuaren balio osoa jasoko dute. *Gongok* kudeaketa-tarifa txiki bat baino ez dio gehitzen oparia egiten duen erabiltzaileari," argitu dute.
Aplikazioa Durangon probatu dute dagoeneko, merkaturatu aurretik. Proba pilotu bat egin zuten, eta horrek "oso emaitza positiboak" izan zituela eta, aplikazioa erabilgarri ipini dute. Android eta iOS sistema eragileetan erabili daiteke.

Kontseiluak Miribillako Pizkundera joatera deitu du

Ekitaldia abenduaren 27an izango da, Bilbao Arenan, 17:00etan. Sarrerak 'pizkundera.eus' atarian daude

Ekaitz Herrera DURANGALDEA
Euskarak eta euskalgintzak hitzordu garrantzitsua dute abenduaren 27an, Bilbon: Euskalgintzaren Kontseiluak indar erakustaldia egingo du Miribillako Bilbao Arena pabilioian, "oldarraldi judizialen eta hizkuntza-politiken atzerapausoei" erantzuteko. Hori horrela, euskaltzaleak hitzordura joatera deitu ditu, etsipenari ateak ixteko eta euskaraz bizitzeko konpromisoa berritzeko; Kontseiluaren esanetan, denon ardura delako "egiturazko minorizazioan dagoen euskararen normalizazioa eta biziberritzea". Alde horretatik, askotariko eragileak deitu ditu "erabilera normalerako baldintzen alde lan egitera". Eragile instituzionalak, politikoak, ekonomikoak eta kulturalak aipatu ditu, besteak beste.



Pizkunderaren aurkezpena. KONTSEILUA

Ekitaldia 17:00etan hasiko da eta Euskal Herriko artista ugari igoko da oholtzara. Anari, Gontzal Mendibil, Gorka Urbizu, Flako Fonki, Itziar Ituño eta Sustrai Colina, besteak beste. Ekitaldirako sarrerak *pizkundera.eus* atarian eskuratu daitezke.

Eñaut Elorrietaren kontzertua eta Kantulagun, Garain

E.H. GARAI
Musikaz beteriko asteburua izango dute Garain. Zapatuan, Eñaut Elorrietak kontzertua emango du Elizabarrin, 19:00etan. Ordu erdi lehenago zabalduko dituzte elizako ateak. Bestalde, nagusien elkarteak Kantulagun egingo du bezperan, hilak 19. Plazan batuko dira abesteko, 19:00etan.



Eñaut Elorrieta. EÑAUT ELORRIETA

MALUTA

San Agustin KULTUR GUNEA
EGUBERRI ZIRKOR

Abenduak	FUMEzing	DAMA BELTZA
27 19:00	(Italia)	(Argentina)
28 12:30/19:00	Dúo ROSSONEVE	KAXPI
29 19:00	(Kanariar Irlak - Italia)	(Nafarroa)
	HILARY	GANSO&Cía
	(Txina)	(Euskadi)

18 urtetik gorakoak 8 €
18 urtetik beherakoak 4 €

ES. Otxandio - ES. Iurretza

Urkiol gasolindegia ibilgailuetarako aukerarik onena.

- GLP, butanoa, kanpin-gasa.
- Kotxeak garbitzeko aukera.
- Barbakoak egiteko ikatza, izotza, platerak...

📍 BI-623, 48213 IZURTZA
📍 BI-623, 48210 OTXANDIO

Nafarroa zentroak saria jaso du, laugarrenez

Nafarroa zentroak Bizkaiko Foru Aldundiaren saria jaso du 'Priscilla: Reinas de Nafarroa' musikalagaz; saria jasotzen duen laugarren aldia da; proiektuaren helburua bakardadea prebenitzea eta parte hartzaileen loturak indartzea da

A. M. ZORNOTZA

Laugarren urtez jarraian, Bizkaiko Foru Aldundiak Zornotzako Nafarroa zentroa saritu du. "Epe luzeko zaintza arloan egindako lan berritzaileagaitik" saritu dute. Oraingoan, *Priscilla: Reinas de Nafarroa* proiektuagaitik jaso dute saria. Nafarroa zentroko adineko pertsonak, adimen urritasuna duten pertsonak eta zentroko profesionalak elkarregaz egin dute musikal ezagunaren egokitzapena, hain zuzen ere. "Hileetan zehar erabiltzaile eta profesionalak elkarregaz lan egin dute aniztasuna, maitatzeko askatasuna eta gizarteratzea azpimarratzen dituen ikuskizun honi forma emateko. Musika, dantza eta antzerkia tresna egokiak izan dira partaide izatearen zentzua indartzeko, sormena bultzatzeko eta parte hartzaileen ongizate emozionala hobetzeko", azaldu dute udal ordezkariak. Modu horretara, Foru Aldundiak ere aitortu gura izan du Nafarroa



Saria jasotzen duen laugarren aldia da.

zentroak egindako lana. "Errekonozimendu honek Nafarroa zentroak pertsonengan oinarritutako arreta-eredu batez gain, konpromisoa indartzen du beste behin ere, errespetuan, entzutean eta komunitate osoaren

inplikazio aktiboan oinarritua", gaineratu dute.

Ekainean estreinatu zuten ikuskizuna, eta zornotzar ugari batu zituen; herritarrez gainera, udaleko eta aldundiko ordezkariak ere joan ziren bertara.



Santiago Onaindia bekadunak eta udal ordezkariak.

Santiago Onaindia Bekaren XIX. edizioa, Cira Cresporentzat

Cira Crespo kazetariak emakume euskaldunen pizkunde literarioen zuztarrei buruzko lana aurkeztu du

A. M. ZORNOTZA

Santiago Onaindia Bekaren XIX. edizioaren lan sariduna Cira Cresporen *Euskal Emakumeen pizkunde literarioaren sustraiak (1899-1922) - Irakurketa dekolonial bat* lana izan da. Euskal emakumeek euskaraz idatzitako lehenengo literatura testuak berreskuratu eta aztertzeke helburua du lanak. Cira Cresporen proposamenaren arabera, 1936 aurreko belaunaldi literario femenino bat existitzen da, historiografiak eta kritikak albo batera utzi dutena. Crespo kazetaria eta historialaria da, eta

hamarkada bat baino gehiago darama Euskal Herrian bizitzen; ibilbide luzea du euskal historia ikuspegi feministatik zabaltzen.

Lourdes Iriondoren ekarpena

Bestalde, iaz saritu zuten *Lourdes Iriondo, bide-urraztaile* lana ere aurkeztu zuten. Lorea Jainaga eta Alexander Gurrutxaga ikerlariek Santiago Onaindia Bekaren VIII. edizioa irabazi ostean egin dute ikerketa. Oraindino garatu barik zegoen euskal literatura sisteman Iriondok izandako aitzindaritzza nabarmentzen dute lanean.

Lehen Mailako Arretako murrizketak salatu dituzte

Osasungintza Publikoaren Aldeko Herri Plataformak deituta, elkarretaratzea egin zuten Elorrion martitzenean



Martitzen goizeko elkarretaratzea.

Aritz Maldonado ELORRIO

Hainbat elorriar herriko anbulatorioaren parean batu zen martitzenean, Lehen Mailako Arretan "Osakidetza egiten dabilen murrizketak" salatzeke. "Ezin dugu normalizatu arlo publikoaren narriadura planifikatua. Lehen Mailako Arretak beharrezko baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak behar ditu kalitatezko osasuna eskaintzeko", adierazi zuten. Osasun zentroetako ordutegiak murriztea ere salatu dute. "Langile faltak lan gainkarga eragiten du, arreta denborak laburtzen ditu eta prebentzio eta osasun komunitarioko lana mugatzen du", esan zuten mobilizazioan. Aurrerantzean ere osasungintza publikoaren aldeko deialdiak antolatzen jarraituko dutela aurreratu zuten bertaratuek.

Berriztu sortzaileen azokaren beste edizio bat, domekan

Frontoian egingo dute azoka. Amaia Egidazu berriztarrak umeentzako collage tailer bat gidatuko du

A. M. BERRIZ

Berrizko sortzaileak batu eta euren lanak erakusteko helburuagaz antolatzen den Berriztu azokaren beste edizio bat egingo dute domekan, hilak 21. "Berriztu azokagaz, euren lanak eta proposamenak herritarren artean ezagutarazteko aukera eman gura diegu Berrizko sortzaileei, euren ogibidea izan zein ez", azaldu dute antolatzaileek. 10:00etatik 14:30era bitartean, herriko sortzaile batzuek euren sorkuntzak erakusiko dituzte bertan, musikaz

girotuta. Negutik babesteko asmoz, aurtien frontoian egingo dute azoka. Ez da aldaketa bakarra izango. Zuzeneko musika egon beharrean, Amaia Egidazu artista berriztarrak umeentzako collage tailer bat gidatuko du; hor sortuko dute gero erakutsiko den horma irudia. Goiza ipuin kontaketa batez borobilduko dute. "Sortzaileek elkar ezagutzeko aukera ona ere bada Berriztu", gaineratu dute. Aurtengo Berriztu azoka Berrizko Udalaren babesagaz antolatu dute.

OSTALARITZA GIDA



IURRETA

GAUARGI



Dantzari, 4 behe
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 @gauargitaberna

ZORNOTZA

XIBERU



Zezilia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 Xiberu Taberna
 @xiberutaberna

DURANGO

IBAIZABAL



Ibaizabal taldea, 2B
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanbursesak, ogitartekoak eta kazolatxoak. Ostiraletan pintxopotea!

DURANGO

OLAJAUREGI



Kurutziaga, 52
Tel.: 946 200 864

Eguerdian asteazkenetik igandera (13:00-15:30)
-Egunekeo menua 19,90€
-Dastatzeko menua 45 €
-Karta
Gauean ostegunetik larunbatera (20:00-22:30)
-Mokadu karta
**TERRAZA ZABALIK: 12:00 - 00:00

 Hotel Olajauregi
 @hotel_olajauregi_jatetxea

anboto
kide



**EGIN ANBOTOKIDE
ETA GOZATU
GURE ZOZKETA
ETA ABANTAILEZ!**

ABENDUKO IRABAZLEAK

Herri Urratseko abestien binilo bikotza.
Antton Izagirre Brabo.

Alcamporen eskutik Auchan produktuez
osaturiko otzara:
Yovana Arteaga Azkarraga.

Xiberu tabernan bi gosari bikoitz:
Olga Barrietabeña Iturriaga
eta Unai Esturo Uribelarrea.

Oporretara goaz,
urtarrilean bueltatuko
gara zozketa
eta sari gehiagorekin.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko
eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Urtarrilaren 3tik probalekua zabalik aisialdi gune legez

Abadiñoko Udalak herritarrekin elkarlanean zehaztu ditu erabakiak, prozesu parte hartzaile baten bitartez



Probalekuko argazki bat. ABADIÑO KO UDALA

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

2025eko aurrekontu parte hartzaileetan, herritarrek probalekua aisialdirako gune estali legez zabaltzea lehenetsi zuten beste proiektu batzuen artean. Abadiñoko Udalak jakinarazi duenez, herritarrekin elkarlanean hainbat erabaki hartu eta gero urtarrilaren 3an aisialdirako gune legez zabalduko dute probalekua, lehenengoz. Eskoletako opor egunetan, asteburuetan eta jaiegunetan egongo da zabalik. Barikuetan 18:00etatik 20:00etara, eta zapatu, domeka eta jaiegunetan 10:30etik 19:30era.

"Oso gustura geratu gara herritarrekin elkarlanean egindako prozesuagaz. Iritzi desberdinak jaso eta herritarren beharrianak zeintzuk diren ezagutzeko aukera izan dugu", adierazi du udal gobernu taldeak.

Zapatueroko azken ekintza, abenduarien 20an, Mallabian

Herriko gaztetxoek herri kirolez gozatzeko aukera izango dute bihar, 16:00etatik 19:00etara

M.Z. MALLABIA

Abenduaren 20an Zapatueroko azken ekintza egingo dute Mallabian. Ekintza haur eta nerabeei zuzenduta dago. Udalak jakinarazi duenez, parte hartzaileek esperientzia hezigarri eta dinamikoa biziko dute herri kirolen bitartez, indarra, oreka eta koordinazioa landuta, eta euskal kulturaren tradizio eta balioei buruz gogoeta eginda. Gainera, ekintzak talde-lanean aritzeko diseinatuta daudela azaldu dute. Konfiantza eta elkarlana bultzatzen dira horrela, eta euskal kultura ezagutzeko aukera ematen dute. 16:00etatik 19:00etara egingo dute ekintza.

"Udalak bere konpromisoa berretsi gura du haur eta nerabeei aisialdi hezigarria eskaintzeko, herri kirolen bitartez balioak bultzatzeko eta herriko gazteei esperientzia aberasgarriak bizitzeko aukera emateko", esan du udalak.



Atxarteko inauterien inguruko irudi bat. JUAN LUIS MARKAIDA 'KUKO'

'Un día al año', Atxarteko inauterien inguruko lana

Filmeko zuzendaria Alfonso Garcia eskalatzailea da. Bilboko Mendi Film jaialdian aurkeztu zuten dokumentala

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

70eko hamarkadatik eskalatzaileek inauteriak ospaten dituzte Atxarten. Hain zuzen ere, eskalatzaileen komunitateko kide batek istripua izan eta osatu zenetik. "Bizitza ospatu" egin behar zela pentsatu zuten. Lehenengo jai hori 1975ean egin zuten, eta 50 urteren ondoren ohitura horrek bizirik jarraitzen du.

Alfonso Garcia eskalatzaileak 17 urte baino gehiago daramatza Atxarten eskalatzen, eta Atxarteko inauterien istorioa dokumental batean jaso gura izan du. "Atxartekoa erritual bat da,

ekitaldi bat baino gehiago, hainbat belaunalditako eskalatzaileak adiskidetasunaren, osasunaren eta bizipozaren inguruan batzen dituen", azaldu du dokumentaleko zuzendaria. Dokumentalean, mendi espiritua eta bertako tradizioak jasotzen direla ere azpimarratu du.

Garciak Bilboko Mendi Film jaialdian aurkeztu zuen *Un día al año* dokumentala, eta hemen dik aurrera mendi, abentura eta naturaren inguruko festibalean ematea du helburu, baita mendi asteetan eta tokiko jaialdietan ere.

Elorrio, etxebizitza udalaren fokuan

Alokairu sozialerako 6 apartamenturen egokitzapen lanak amaitzear daude. Interesdunek alta eman beharko dute Etxebiden



Elorrio.

Elorrian, etxebizitza ez da gai tekniko huts bat; herriaren etorkizun sozial eta ekonomikoan eragin zuzena duen ardatz estrategikoa da. Horregatik, azken urteotan udalak etxebizitza jarri du fokuan, eta herritarrek ere argi erakutsi dute etxebizitzarekiko ardura handia dutela, aurrekontu parte-hartzaileetan egindako aukeraketa ikusita.

2026. urtea funtsezkoa izango da alokairuko etxebizitzak sustatzeko:

Alokairu sozialerako etxebizitzak Goietan

Goietako 6 apartamenturen egokitzapen lanak amaitzear daude, eta 2026ko urte hasierarako bukatuta egongo dira. Etxebizitza horiek alokairu sozialerako bideratuko dira, baliabide gutxiagoko pertsonentzako aukera duin eta eskuragarriak sortuz. Ez da proiektu isolatu bat, bai-

zik eta etxebizitza politikaren zutabe nagusietako bat indartzen duen inbertsio estrategikoa. Etxebizitzetan interesa duten pertsonen alta emanda egon beharko dute Etxebiden, eta Alokabide arduratuko da kudeaketaz.

Elorrio, alokairu merkatuan eremu tentsionatua

Elorrio herri tentsionatua dela aitortu bidean dago alokairu merkatuaren ikuspegitik. 2018 eta 2023 artean alokairuen prezioek %21eko igoera izan zuten. Testuinguru horretan, udalak etxebizitzen merkatuan esku hartzeko ardura hartu du, eta Elorrio alokairu merkatuan tentsio eremu gisa izendatzeko izapideak abiarazi ditu, neurri eraginkorrak martxan jarri ahal izateko.

Izendapen-prozesu horrek aukera emango du, besteak beste,

alokairuen igoerei mugak jartzeko, etxebizitza hutsak aktibatuzko pizgarriak diseinatzeko eta laguntza publiko gehiagorako sarbidea izateko. Horretarako, lehenik eta behin, udalerriko etxebizitzaren egoerari buruzko diagnosi zehatza egingo da eta, ondoren, hiru urterako ekintza-plan bat diseinatarako, lehenik eta behin, udalerriko etxebizitzaren egoerari buruzko diagnosi zehatza egingo da eta, ondoren, hiru urterako ekintza-plan bat diseina-



Goietako alokairu sozialerako etxebizitzak.

tuko da, babes publikoko etxebizitzaren eskaintza handitzeko eta alokairu eskuragarria sustatzeko neurri zehatzekin.

Herritarren ardura

Herritarrek ere norabide hori berretsi dute. Izan ere, 2026ko aurrekontu parte-hartzaileetan boto gehien jaso duen proposamena etxebizitza hutsen azterketa sakona egitea eta alokairua sustatzeko programa bat abiaraztea izan da. Emaizak argi erakusten du etxebizitzarekiko ardura ez dela soilik udalaren agenda politikoan agertzen den gaia: herri osoak partekaturiko kezka eta lehentasuna da.

IBlan errektarioa

Etxebizitza hutsen arazoari modu zuzenagoan heltzeko, 2026tik aurrera IBIaren errektarioa %150era igoko da etxebizitza hutsen kasuan, egoera hori justifikatu ezin dutenentzat. Neurri horren bidez, udalak mezu argia bidali nahi du: etxebizitza baliabide eskasa da, eta udalak bere bitarteko guztiak erabiliko ditu herrian dauden etxe hutsak merkaturatzea sustatzeko.

Epe luzerako proiektuak

Hala ere, udalak badaki ez dagoela neurri bakar eta azkarrik arazo konplexu honi erantzuteko. Horregatik, azken hileotan lanketa isila baina etengabea egiten ari da, maila ezberdinetan: administrazio arteko bilerak, lurzoruen eta eraikin potentzialen azterketa, finantzaketa aukeren identifikazioa eta etorkizuneko etxebizitza proiektu posibleen diseinua. Horietako batzuk oraindik ez daude erabat finkatuta, eta ezin dira publiko egin, baina argi dago udal lan-mahaietan gai nagusietako bat bihurtu dela etxebizitza.

Azken batean, Elorriok bada-ki etxebizitza duina izatea funtsezkoa dela herri bizia, anitza eta orekatua mantentzeko. Goietako apartamentu sozialak, herri tentsionatuaren izendapena lortzeko urratsak, aurrekontu parte-hartzaileen bidez jasotako ekarpenak eta IBIaren errektario berria kate bereko loturak dira. Helburu bera dute: etxebizitza udalaren fokuan jartzea, herritarren ongizatearen eta belaunaldi berrien etorkizunaren mesedetan.

Maiztegiko jolastokia diru laguntzen esku

Iurretako gobernu taldeak ez du onartu EH Bilduk Maiztegiko jolastokia eraldatzeko aurkezturiko finantziario proposamena. Udalbatzarrak Maiztegi eskolaren proiektuaren jarraipen batzordea eta Hezkuntza Foroa eratzea onartu du

Aitziber Basauri IURRETA

Finantziarioa ziurtatu arte, Iurretako gobernu taldeak ez du Maiztegi eskolako jolastokia eraldatzeko proiektua gauzatzeko. "Lortzen dugun diru laguntzaren arabera joango gara proiektua aurrera eramaten. Helburua %100ean finantzatzea da", azaldu zuen Oskar Koka alkateak.

Gobernu taldeak atzera bota zuen Maiztegiko jolastokia eraldatzeko EH Bilduk udalbatzan aurkezturiko finantziario proposamena. 2024ko azaroan aurkezturiko proiektuan oinarrituta, EH Bilduk obren hirugarren fasea —txintxaunak ipinita egongo lirateke— 2026ko lehenengo sei hileroan gauzatzeko proposatu zuen. Horretarako, Udaleraike programaren bitartez diru laguntza eskatzeko konpromisoa hartu behariko litzateke, %60ko finantziarioa lortzeko. Bestalde, lehenengo fasea gauzatzeko, dirua aurreratzea proposatu zuen EH Bilduk, "estaltzearen doikuntza barne". Hauxe



Eguaztenean ezohiko osoko bilkura egin zuten gaia eztabaidatzeko.

alkatearen erantzuna: "Diru laguntza lortuz gero eta proiektua gauzatzeko posible bada hasiko dira lanak. Laguntzarik jaso ezean, zer egin aztertu beharko dugu". Eta gaineratu zuen apirillean edo maiatzetan jakingo dutela zenbat diru

dagoen proiektua garatzeko. Udalbatzak eskolaren proiektuaren jarraipen batzordea eta Hezkuntza Foroa eratzea onartu zuen, eta udalak konpromisoa hartu zuen jolastokiaren eraldaketa bideratzeko eta informazioa emateko.



Xerra estudioiko Ane Lusarreta eta Laida Zapre dira jaialdiaren antolatzaileak.

'Otzue, otzue, otzue' jaialdiaren lehenengo edizioa Zaldibarren

Abenduaren 26tik 28ra egingo dute. Film laburrak, poesia, musika eta gastronomia batu dituzte egitarauan

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Xerra estudioak *Otzue, otzue, otzue* jaialdiaren lehenengo edizioa antolatu du. Arte adierazpenak hirietatik ateratzeko eta herrietara eramateko asmoz jaiotako jaialdia da, Zaldibarren estreinatuko dutena. Hori horrela, askotariko arte ekitaldiak programatu dituzte herriko hainbat bazterretan: Xerra espazioan eta estudioan, Sorgin tabernan, Liburutegi zaharrean eta gaztetxean. Poesia, film laburrak, gastronomia eta berbal-diak eskainiko dituzte leku horietan, eta hainbat gonbidatuk

hartuko du ekitaldiok gorpuzteko ardura. Besteak beste, honako hauek: Maren Zubeldiak, Silvina Guglielmottik, Xabi Larrazabalek eta Anaís Córdova-Páez zinemagileek, Ana de la Maza kontserba ekoizleak, Leire Kindos sukaldariak eta IbonRG, Garazi Navas, Ane Seguro eta Lide Billelabeitia musikariek.

Jaialdiaren atzean Laida Zapre eta Ane Lusarreta donostiarrak daude, Zaldibarko Xerra espazioaren arduradunak. Egitarauko xehetasunak anboto.org atarian kontsultatu daitezke.

Herrian erostea bultzatzeko kanpaina hasi dute Iurretan

Herriguneko establezimenduetan egindako 50 euroko erosketagaitik aterki tolesgarriak oparitu dituzte

A.B. IURRETA

Gabonetan, Iurretan erosi eta opariak irabazi lelopean, merkataritza eta ostalaritza bultzatzeko kanpaina hasi dute asteon. Ekimenak abenduaren 30era arte iraungo du eta herriguneko 50 euroko erosketak egiteagaitik aterki tolesgarriak oparitu dituzte. Oskar Koka alkateak eta Alex Palacios Dendak Bai elkarreko presidentek aurkeztu zuten ekimena. Zenbait establezimendutako tiketak aurkeztu daitezke HAZn. Gabonetako hiru otzara zotz egingo dituzte.



Koka eta Palacios. IURRETAKO UDALA

Datorren urtean Samartoi kalea urbanizatuko dute Otxandion

Otxandionko Udalak 2,5 milioi eurotik gorako aurrekontua izango du 2026ko proiektuak aurrera eramateko

A.B. OTXANDIO

Otxandion 2,5 milioi eurotik gorako udal aurrekontua izango dute 2026rako. "Herritarren premiei erantzutea eta herriaren etorkizuneko proiektuei bultzada ematea"; gobernu taldeak horixe du helburu datorren urteko aurrekontua osatzeko orduan. EAJk ez du babestu EH Bilduk egindako aurrekontu proposamena.

Inbertsio nagusi bi jaso dituzte 2026rako udal kontuetan. Batetik, Samartoi kalearen urbanizazioa gauzatzeko dute. Gober-

nu taldeak jakinarazi duenez, Artekalari paralelo doan kalea berritzu gura dute, "irigarritasuna hobetzeko helburuagaz". Horretarako, 306.400 euroko diru poltsa lotu dute udal aurrekontuan. Horregaz batera, udaletxean igogailua instalatuko dute datorren urtean. Modu horretan, talde subiranistak eraikinaren erabilera erraztea du helburu. Eta zehaztu dute "herritar guztientzako irigarritasuna" bermatuko dutela. Inbertsio horri aurre egiteko, 100.000 euro erabiliko dituzte.

'Poltsa bete Otxandion!' Gabonetako kanpaina hasi dute asteon

A.B. OTXANDIO

Otxandionko Udalak, herriko zortzi komertzioz elkarlanean, Gabonetako kanpaina hasi du tokiko merkataritza bultzatzeko. Kanpaina abenduaren 15ean hasi zen eta urtarilaren 5era bitartean iraungo du. Kanpaina parte hartzen duten herritar guztien artean 10.000 euro banatuko dituzte. Halantxik jakinarazi dute ekimenaren bultzatzaileak. Azken eguneko zozketa egingo dute eta irabazleak 1.000 euro lortuko ditu erosketak bonuetan, gaineratu dutenez.

Tokiko establezimenduetan erosiz herritarrek kanpaina parte hartzera deitu dituzte udal ordezkariak.

Trafikoa mantsotzeko neurriak aurrekontuetan

Mañarian 2026ko aurrekontuak onartu dituzte asteon. Herritarren ongizatea "hobetzen" eta azpiegiturak "sendotzen" jarraituko dute. Besteak beste, kirolgunea isolatu, trafikoa mantsotzeko goraguneak ipini eta aparkaleku bat egin gura dute

Joseba Derteano MAÑARIA

Mañariko Udalak 2026ko aurrekontuak onartu zituen martitzen goizeko udalbatzarrean, gobernu taldearen (EH Bildu) aldeko lau botoekin eta EAJren boto bateko abstentzioagaz, udalak ohar batean azaldu duenez. Guztira, herriak 1.122.065 euroko aurrekontua izango du. "Aurrekontu hauek herritarren ongizatea hobetzea dute ardatz, eguneroko beharrazanez erantzunez eta zerbitzuak zein azpiegiturak sendotuz", azaldu du Aitziber Areitio alkatea. Aurrekontuetan hainbat proiektu gauzatzea aurreikusten dute, eta beste batzuetarako lehen-



Martitzeneko udalbatzarreko bozketako irudi bat.

dik dagoen soberakina erabiliko dute.

2026ko inbertsioen atalean, kirolguneako azpiegitura isolatzeko lanak egingo dituzte. "Helburua efizientzia energetikoa handitzea da, baina, batez ere, erabiltzaileen erosotasuna hobetzea", azaldu dute. Lan horietarako, 22.000 euroko partida aurreikusi dute. Ateetan sarrai-berriak ipiniko dituzte.

Herriguneako trafikoa mantsotzeko, goragune bi ipintzea aurreikusten dute: bata udal-terrearen eta osasun zentroaren artean, eta bestea autobus geltokiko zebra-bidearen ondoan. Udal Bizkaiko Foru Aldundia- ren baimenaren zain dago proiektua gauzatzeko; izan ere, horixe izan da aurrean lanak ez egiteko arrazoia, udalak zehaztu duenez. Proiektu honetarako, 58.000 euro inguruko inbertsioa aurreikusi dute.

Aparkalekua

Herrigunean dagoen aparkaleku arazoari irtenbidea emateko, lanean jarraituko dutela eta herriko sarreran aparkaleku berri bat egingo dutela azaldu

dute oharrean. Orain, udala Aldundiak eskatutako moldaketetara egokitzen dabil, lanak gauzatu ahal izateko. Proiektua finantzatzeko, diru laguntza eskatuko diote Azpiegiturak Sailari, inbertsioaren zati bat laguntza horren bitartez ordaindu ahal izateko. Horrez gainera, udala aparkaleku aukera gehiago ere aztertzen dabil.

Bestalde, 36.000 euroko diru atala gorde dute frontoiko zorua berrizteko. Bide batez, frontoiko atea konponduko dute. Eta, urtero legeaz, auzo bideak konponduko dituzte; 40.000 euroko diru atala dute horretarako. Era berean, auzoetako argiteria publikoa ere berrituko dute.

Kulturaren arloan, askotariko ekimenak antolatzen eta bultzatzen jarraituko dute, "Mañariko bizitza indartzeko helburuagaz". Eta gazteei zuzenduriko ekimenak bultzatuko dituzte, ekintzak antolatzen lagunduz eta parte hartzea sustatuz.

Beste egitasmo batzuk ere egingo dituzte. Esaterako, Mañariko toponimia ikertu eta jasotzeko proiektua dute helburu.

Atxondoko Udalak furgoneta elektrikoa erosi du

Renault markako ibilgailua udaleko brigadaren eguneroko lanetarako erabiliko dute. Guztiz elektrikoa da eta udalaren energia berriztagarrien aldeko apustua sendotzen du. Udalak Artia industrialdean duen pabilioian dago furgonetarentzako kargagailua

J.D. ATXONDO

Atxondoko Udalak furgoneta elektrikoa erosi du, 44.000 euroko inbertsioa eginda. Aurreko ibilgailua zaharkituta zegoelako eta arazoak ematen zituelako eskuratu dute berria. Horrela, udalak "bere jardunean energia berriztagarrien eta ingurumenaren aldeko apustua berresten du", azaldu dute ohar batean. Gastuaren zati bat Energiaren Euskal Erakundearen MOVES III diru laguntzen bitartez estali dute. Udaleko brigadak Artia industrialdean duen pabilioian karga-puntu bat ipini dute, ibilgailu berria modu eraginkorrean kargatu ahal izateko.



Eneritz Agirre alkatea eta udal langileak, furgoneta erosi berriaren aurrean.

Espaloia amaitzeko diru atala Izurtzako aurrekontuetan

Udalak Tabira inguruan falta den espaloia zatia amaitu gura du 2026an, Izurtza-Durango noranzkoan

J.D. IZURTZA

Azaro amaieran, Izurtzako Udalak aho batez onartu zituen 2026ko aurrekontuak. Zenbateko osoa, 700.803 euro, iaz baino "apur bat handiagoa" da, udal arduradunen esanetan; izan ere, udalkutxatik iaz baino 27.000 euro gehiago jaso dituzte, 373.632 euro guztira.

Aurrekontuetan hainbat inbertsio aurreikusi dute. Esaterako, 24.650 euro gorde dituzte hilerrian hormigoizko bideak konpontzeko, arbolen mantentze-lanetarako eta beste lan batzuetarako.

Espaloia amaitu

Horrez gainera, Izurtza-Durango noranzkoan espaloia zati bat falta da Tabirako biribilgune inguruan, eta hori ere egin gura dute, 29.000 eurogaz. Horrez gainera, autobus geltokia tokiz



Izurtzako udaletxea.

aldatu gura dute, eta botika aurretik txaleten ingurura eta herrigunean goraguneak ipini gura dituzte. 89.000 euroko diru atala dute lan horietarako. Beste 2.293 eurogaz, Santo Tomas parkeko zubitik errekarra jais-teko bidexka konponduko dute.

Iurretako berbeta eta literatura langai institutuko ikasleekin

Iurretako Juan Orobiogoitia Institutuko ikasleek herriko berbeta eta literatura landu zuten joan zen abenduaren 10ean. Horretarako, DBH1eko ikasleek Iurretako toponimiari buruzko tailerra egin zuten Alberto Erraztik gidatuta, eta DBH2ko neska-mutilek herrian jasotako bertso eta kanta entzuteko aukera izan zuten, Kristina Maridasen, Justo Alberdiren, Rafa

Iriondoren eta Antton Mari Aldekoa-Otaloraren eskutik. Bestalde, Xabier Bovedak eta Joseba Sarrionandiak *Sator hegalaria: Iurretako berbeta eta literatura* liburua aurkeztu zuten batxilergoko ikasleen aurrean. Eguna borobiltzeko, hizlari guztiak Euskal Herrira etorri berri diren ikasleekin elkartu ziren liburutegian, elkarren berri emateko.



Hizlariak ikasleekin.

DURANGALDEA ASTEON

Urtarriletik aurrera, antzerki tailerra Atxondon

ATXONDO Urtarriletik aurrera, Garazi Magunagoitia atxondarrak antzerki tailerra emango du. Karrika Antzerki Taldeko kidearen ekimena 7tik 16 urtera arteko gazteei zuzenduta egongo da. Astean ordu biko saio bat emango du. Eguna oraindino zehaztu barik dago; egun bi daude aukeran, eguna eta barikua. Interesdunek abenduaren 29a baino lehenago eman beharko dute izena.



Gabonetako tailerra Mañariko Hotza Museoan

MAÑARIA Natur zientzien Hontza Museoak Gabonetako tailerra antolatu du. Adinka banatuta, saio bi izango dira: 8 urtetik beherakoentzat abenduaren 29an, 11:30etik 13:00etara; 8tik 12 urtera artekoentzat abenduaren 30ean, 11:30etik 13:00etara. Prezioa 10 euro da. "Maskarak zein jai-txartelak egin, etorri gugaz sortzera eta bizi Gabonen magia", gonbit egin dute museoko kideek sareetan.



Elgoibarko Haritz dantza taldea 'Durangon Folk'-en

DURANGO Kriskitin eta Jaizale taldeek Elgoibarko Haritz dantza taldeko kideekin egingo dute aurtengo Durangon Folk jaialdia. Bihar izango da, 19:00etan. "Ilusio handiz" prestatu dute hitzordua, eta oholtza gainera 110 dantzari baino gehiago igoko direla azpimarratu dute, 7tik 75 urtera bitartekoak. Bertan, Jaizale txistulari taldeko kideek eta trikitilariak, biolinistek eta panderojoleek ipiniko dute musika. 26 dantzarik eta musikarik osatuko dute Elgoibarko ordezkaritza.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - Iurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

> anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Marketina: Deñe Izaga Yeregui.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



ABADIÑO

ABENDUAK 20

10:00 Picke ball torneo. **16 urtetik aurrera.** Traña-Matienako erabilera anitzeko pabilioian.

11:00 - 14:30 Neguko azoka. Traña-Matienako Eskolako aterpean.

16:30 - 18:30 Ur puzgarriak. Udal igerilekuak. 8 urtetik beherakoak heldu batek lagunduta

19:00 Antzerkia: Jaque mate. **Grupo Nostra Terra.** Errota Kultur Etxean.

19:00 Frontenis Txapelketa. Traña-Matienako frontoian.

ABENDUAK 21

10:00 - 13:30 Gabonetako xake txapelketa. Traña-Matienako frontoia

13:00 Gabonetako kontzertua. **Abañoko kantariak.** San Prudentzio elizan.

17:00 Ikuskizuna: 'Boom Boom! Txulalai'. Probalekuan.

ABENDUAK 23

17:00 Ikuskizuna: 'Magia zure baitan dago'. Liuba magoa. Traña-Matienako frontoian.

18:00 Umeentzako tailerrak. Traña-Matienako frontoian.

ABENDUAK 24

9:00 Astxikira igoera. Txanporta plazan.

10:15 Astxikira igoera. Sagasta

11:30 Gabonetako lasterketa. Muntsaratzen.

17:00 Olentzero eta Mari Domingigaz kalejira.

Traña-Matienan, Muntsaratzen, Txanportan.

ABENDUAK 26

19:00 Gabonetako kontzertua. **Oscar Rodriguez Pastora (organoa) eta Marco Cubillas (tronpeta)**

ABENDUAK 27

19:00 Bakarrizketa: Gregoria. Txanporta Kultur Etxean.

ABENDUAK 27-28

10:00 - 12:30 / 16:00 - 18:30 X. Abadiño Cup

ABENDUAK 28

17:00 Ikuskizuna: Denak plazara. **Pontx pailazoa.** Errota Kultur Etxean.

ABENDUAK 28-29-30

11:30 - 13:30 / 16:00 - 20:00 Umeen Gabonetako Jolasgunea. **0-9 urte Probalekua.** **10 urtetik aurrera** Traña-Matienako frontoian.

ABENDUAK 29

19:00 Kontzertua: Herri Maite. Errota Kultur Etxean.

ABENDUAK 30

19:30 Txokolatada eta diskofesta. Zelaietako frontoian.

URTARRILAK 2

16:30 - 18:30 Umeentzako tailerrak. Probalekuan.

URTARRILAK 3

10:00 Pickle ball. **Ate irekiak.** **16 urtetik aurrera.** Traña-Matienako erabilera anitzeko pabilioian.

16:00 - 21:00 Areto Futbol Txapelketa. Traña-Matienako erabilera anitzeko pabilioian.

URTARRILAK 5

18:00 - 20:00 Errege magoen kabalkada. Muntsaratzen, Zelaietan, Traña-Matienan.

ATXONDO

ABENDUAK 19

16:30 Tailerrak ludotekaren eskutik. Apatako plazan

18:30 Txokolate beroa guztiontzat. Apatako plazan

19:00 Andasto dantza taldea. Apatako plazan

ABENDUAK 23

18:00 Antzerkia: 'Pulcinella txio-txinela'. **Zurrunka teatro-ren eskutik.** Eskolako gimnasioan

ABENDUAK 24

09:00 Olentzero kantari. **Ostean, mokadutxo.** Axpeko plazatik

ABENDUAK 24

15:00 Olentzero kantari. Arrazolako plazatik

ABENDUAK 30

10:30-12:30 Txirrindularitza jardunaldia Apatako plazan

BERRIZ

ABENDUAK 19

16:00-19:00 Uretako puzgarriak, igerilekuan.

20:00 'Ninini' Antton Telleriaren bakarrizketa, Kultur Etxean (8€).

ABENDUAK 21

12:00 Gimnastika erritmikako erakustaldia, kiroldegiko kantxan.

ABENDUAK 24

09:30 Olentzerori eta Mari

Domingiri harrera auzoetara joateko, Olakueta plazan.

17:30 Olentzerori eta Mari Domingirekin kalejira, udaletxetik Olakueta plazara.

ABENDUAK 26

12:00-13:30/17:00-18:30, 'Olentzero eta Mari Domingiren desagerpena' gabonetako ihes gela, Kultur Etxe zaharrean.

ABENDUAK 27

12:15 'Kontuek kontu, arkalaz batu' Oihana Etxegibele gaz ipuin txokoa, Kultur Etxean.

19:00 Aretha Gospel 'Spirit' gospel kontzertua, San Juan Ebanjelari elizan.

URTARRILAK 2

17:00 Eleder magoaren 'Magia mundiala', kultur etxean (6€).

URTARRILAK 3

12:00-13:30/16:00-19:00 Gabonetako Haur Parkea, Olakueta frontoian.

URTARRILAK 5

17:30 Erregeen kabalkada, komentutik hasita.

DURANGO

ABENDUAK 20

Izotz pista zabalik urtarriaren 6ra arte. Landako Gunean

09:00 – 20:00 Rastrilloa Andra Mariko elizpean (Inurri Eskaut)

10:00-14:00 'El Arbol – Bidelagun' Azoka solidarioa Madalenan (Auzo Alai)

17:00 – 18:30 Umeentzako jolasak elizpean. (Inurri Eskaut)

19:00 Ospakizuna Andra Mariko

Basilikan (Inurri Eskaut)

12:00 – 14:00 Mahai informatiboak Andra Mariko elizpean. Minbiziaren Aurkako Elkarte DYA eta Asebiek gaixotasun arraroen elkarte.

17:00-18:00 Txokolatada Madalenan (Auzo Alai)

19:00 Kriskitin dantza taldearen, Elgoibarko Haritz dantza taldearen eta Jaizalaren emanaldia. San Agustin Kulturgunean (Sarrerak Arte eta Historia Museoa salgai)

20:00 Geu Be elkartearen aldeko rock kontzertua **Durango Orfeoiaren eta musika bandaren eskutik.** Landako Gunean. (Sarrerak JAEDen standean salgai)

20:45 Otzararen zozketa. Madalenan. (Auzo Alai)

21:00 Gabon zaharretako kanpaiak. Madalenan (Auzo Alai)

21:00-24:00 DJ Gabi Madalenan. (Auzo Alai)

ABENDUAK 21

10:00 – 20:00 Eixu elkartearen artisaу azoka. Andra Mariko elizpean.

12:00 Gabonetako txistu kontzertua, Jaizalaren eskutik. Barandiaran nagusien egoitzan

12:30 Durango kantari: Egundo i Taldea. Merkatu plaza berrian.

18:00 Ipuin kontalaria (Oihana Etxegibel). Andra Mariko elizpea

19:00 Tabira musika bandaren kontzertua. San Agustin Kulturgunean

ABENDUAK 22

11:30 – 13:30 Dendak Bairen bertako merkataritza sariak: erruleta baten bidez, unean uneko sariak irabazteko aukera



saltokietako erosketa txartelak aurkeztuta. Andra Mariko elizpean.

16:00 – 20:00 Eixu elkartearen artisau azoka. Andra Mariko elizpean.

17:00 – 20:00 Dendak Bairen bertako merkataritza sariak: erruleta baten bidez, unean uneko sariak irabazteko aukera saltokietako erosketa txartelak aurkeztuta. Andra Mariko elizpean.

18:00 Ipuin kontalaria (Oihana Etxegibel). Andra Mariko elizpean.

ABENDUAK 23

11:30 – 13:30 Dendak Bairen bertako merkataritza sariak: erruleta baten bidez, unean uneko sariak irabazteko aukera saltokietako erosketa txartela aurkeztuta. Andra Mariko elizpean.

16:00 – 20:00 Eixu elkartearen artisau azoka. Andra Mariko elizpean.

17:00 – 20:00 Dendak Bairen bertako merkataritza sariak: erruleta baten bidez, unean uneko sariak irabazteko aukera saltokietako erosketa txartelak aurkeztuta. Andra Mariko elizpean.

ABENDUAK 24

18:30 Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira. Ibilbidea: Durangoko Institutuan, Ermodo kalean, Zumalakarregi kalean eta Ezkurdin.

16:00 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna: 'Zerua lapurtu dute!'. Landako Gunean. Sarrerak abenduaren 16tik aurrera salgai Kutxabanken webgunean eta Arte eta Historia Museoa.

19:00 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna: 'Zerua lapurtu dute!'. Landako Gunean. Sarrerak abenduaren 16tik aurrera salgai Kutxabanken webgunean eta Arte eta Historia Museoa.

21:30 Kontzertua: Broken Salad. Plateruenean.

ABENDUAK 27

12:30 – 14:00 Balkoiak Gabonetarako atontzeko tailerra Muruetatorre auzoan (Muruetatorre auzo elkarte)

12:30 – 14:30 Durangoko orfeoiares kalejira:

Plateruen plaza, Ezkurdi, Andra Mariko elizpea, Alde Zaharra

19:00 Dantzaldia: Lorratz taldea. Andra Mariko elizpea

19:00 Herri Maiteren akordeoi kontzertua. Kurutzesantun.

ABENDUAK 28

13:00 Gabonetako txistu kontzertua. Jaizale eta Durangaldeko txistulariak, abeslariak, hariak, metalak, pianistak eta trikitilariak. Plateruenean.

ABENDUAK 28-30

11:00 – 14:00 eta 16:00 – 20:00 Umeen Gabonetako Parkea. Landako Gunean. Umeak doan. Helduak 1 €

ABENDUAK 29

12:30 Ume eta familientzako bizikleta tailerra eta irteera. Ezkurdin (Euria bada, Nevers ikastetxean)

20:00 Organo kontzertua lau eskutara: Pablo Marquez eta Atsuko Takano. Andra Mariko basilikan (Arandoño kultur elkarte)

ABENDUAK 31

12:00 Jolas Eguna: Kanpaikada txiki. San Fauston. San Faustoko auzo elkarte.

URTARRILAK 2-4

11:00 – 14:00 eta 16:00 – 20:00 Umeen Gabonetako Parkea. Landako Gunean. Umeak doan. Helduak 1 €

URTARRILAK 2

16:30 Jolas Eguna: Memoriarekin kozinatzen tailerra. Otamotzena auzogunean. (Herria auzo elkarte)

URTARRILAK 5

18:45 Errege magoen kabalkada. Ibilbidea: Frai Juan Zumarraga, Ezkurdi (19:15), udal plaza (19:35, geldialdia), Andre Maria (20:15), San Fausto (21:15)

URTARRILAK 6

13:00 JAEDen zozketa. Andra Mariko elizpean.

URTARRILAREN 6RA ARTE

Jaiotza erakusketen ibilbidea Egilea: Luis Ibáñez. Orduategia (Madalena ermita): **18:00-20:00**. Bisita gidatuari buruzko informazioa: Nagusien Udal Egoitzan.

ELORRIO

ABENDUAK 19

09:30 Herri eskolako umeen Santamas azoka, bertso eta kantekin.

ABENDUAK 20

11:30 umeen Santxibiri lasterketa.

12:30 helduen Santxibiri lasterketa.

ABENDUAK 21

17:00 'Check out' klown ikuskizuna Arriolan.

ABENDUAK 24

10:30-15:00 VII Gabonetako Artisau eta Sortzaileen Azoka plazan.

18:00 Olentzero eta Mari Domingi elizpean.

ABENDUAK 27

10:00-13:00 puzgarriak LH 4., 5., eta 6. mailetako ikasleentzat kiroldegiko igerilekuan.

ABENDUAK 31

09:00 'Erdellakoekin mendira!' (Atxaurrutxagane - Gongeta) plazan.

URTARRILAK 1

09:00 'Guztiok Erdellara!' plazan.

URTARRILAK 5

18:30 Errege Magoen etorrera elizpean.

GARAI

ABENDUAK 19

19:00 Kantulagun ekitaldia. Plazan.

ABENDUAK 20

17:00 Plaza dantzen ikastaroa. Frontoian.

19:00 Eñaut Elorrietaren kontzertua Elizabarrin.

ABENDUAK 24

Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera. Antolatzaileak: udala eta jai batzordea.



Galtzagorriak, iaz, Olentzeroren eta Mari Domingiren etorreran, Zaldibarren. ZALDIBARKO UDALA

ABENDUAREN 14TIK 28RA

Gabonetako marrazki lehiaketa. Artelanak udaletxe atariko buzoian utzi behar dira.

ABENDUAK 31

10:00 Arakaldora igoera plazatik.

12:30 Kopaua plazan.

URTARRILAK 3

17:30 Umeentzako jolasak. Ondoren, merendola.

IURRETA

ABENDUAK 19

19:00 'Casi' helduentzako ipuin kontalaria (Virginia Imaz), Ibarretxe kultur etxean (sarrera gonbidapenagaz).

ABENDUAK 23

10:00 Abenduko koplak abestuko dira, etxerik etxe, Aita San Migel plazatik irtenda.

Goizean zehar, eskolaumeek euren gutunak ekarriko dituzte Ibarretxe kultur etxera.

10:15 'Errekari Mari' txotxongilo ikuskizuna (Rosa Mari Martinez), 2-3 urteko umeentzat, Ibarretxe kultur etxean. Eskolagaz hitzartutako ekitaldia.

10:45 'Errekari Mari' txotxongilo ikuskizuna (Rosa Mari Martinez), 4-5 urteko umeentzat, Ibarretxe kultur etxean. Eskolagaz hitzartutako ekitaldia.

11:00 'Gora koplak' ikuskizuna, LH1etik LH4rako umeentzat, Ibarretxe kultur etxean. Eskolagaz hitzartutako ekitaldia.

12:00 Olentzerori eta Mari Domingiri harrera, Aita San Migel plazan. Ondoren, trikitilariak alaitutako kalejira, herrian zehar (euria eginez gero ekitaldia karpan izango da).

ABENDUAK 26

11:30 Iurretako gutun-postal lehiaketaren sari banaketa Ibarretxe kultur etxean.

12:00 'Ipuin porrusalda' ipuin kontaketa Amaia Egidazuren eskutik Ibarretxe kultur etxean (sarrera gonbidapenagaz). 3-5 urteko umeak heldu batek lagunduta egongo dira.

ABENDUAK 26 ETA 27

17:00-20:00 Umeentzako Gabonetako Parkea (ludoteka, puzgarriak, jolasak eta tailerrak), Kepa Arroitauregi frontoian.

ABENDUAK 29 ETA 30

Gabonetako tailerrak: Txiki Chef, Gabonetako errezeta bereziak.

09:30-11:00 LH1etik LH4ra bitartekoentzat.

11:30-13:30 LH5etik DBH2ra artekoentzat. Izena emateko, abenduaren 18ra bitartean, Ibarretxe kultur etxean edo kultur-etxea@iurreta.eus emailera idatzita.

ABENDUAK 31

11:00 Colacauen bueltie. Plazatik.

MALLABIA

ABENDUAK 19

17:30 Ping-pong txapelketa. 12 urtetik gorakoentzat Eskolako frontoian. Ant.: A.D. Mallabia F.T.



urtetik beherakoenzat. Ant.: A.D. Mallabia F.T.

MAÑARIA

ABENDUAK 23

18:00 Ipuin kontaketa: ‘Betiko ipuinak, betirakoak’. Bego Alabazanen eskutik. 5 urtetik gorakoentzat. Liburutegian.

ABENDUAK 24

18:00 Olentzerori eta Mari Domingiri ongietorria. Plazan.

ABENDUAK 30

19:30 Azken barikuko enkartelada. Plazan.

ABENDUAK 31

10:30etik aurrera San Silvestre herrikoia. Plazan.

URTARRILAK 1

09:30 Urte Barri Eguneko Gallandara irteera (Zaldi Mendi Taldea), 09:30 lurretako plazan.

11:00 Tontorrean argazkia. Salda eta 2026ko egutegia banatuko dira.

URTARRILAK 5

17:30 Errege Magoen kabalkadari harrera, Askondon. Txokolatea eta elkartasun opila banatuko dira.

OTXANDIO

ABENDUAK 19 GUTUNA OLENTZERORI

17:00 Jostailuen truke azoka Kontseilupean.

18:00 Olentzeroren laguntzaileak etorriko dira umeen gutunak jasotzera.

ABENDUAK 20

16:30 Esku pilota jaialdia, Iluntxo pilota eskolak antolatuta.

20:00 Udal Bandaren gabonetako kontzertua elizan.

ABENDUAK 21

18:30 Gabonetako bingo berezia, Jubilatuen Elkartean (18 urtetik gorakoak). Sari bereziak egongo dira.

ABENDUAK 21

18:00 ‘Aitatxo’ dokumentala herriko frontoian. Ant.: Zaparrada elkarte. Lag.: Udala

ABENDUAK 23

10:00 Eskolako ikasleak herrira jaitsiko dira gabon kantak abastera. Ibilbidea: Haurreskola, farmazia, udaletxea eta jubiletxea. Euria bada, eskolako frontoian. Ant.: eskola

Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera eskolan. Ant.: eskola eta Zaparrada elkarte

ABENDUAK 24

18:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren laguntzaileek, galtzagorriek, opariak banatuko dituzte herriko frontoian. Ant.: udala

ABENDUAK 27

10:00 Baserririk baserri gabon eskean Ibilbidea: Longa, Gereaa eta Osma. Ant.: Mendibil abesbatza.

ABENDUAK 28

12:00-13:30 Harri Herrirako Bidea: emakumezko eta gizonezko harrijasotzaileak herriko frontoian. Ant.: udala

URTARRILAK 2-3

11:30-13:30 / 16:30 - 19:30 Gabonetako Haur Parkea herriko frontoian. Ant.: udala

URTARRILAK 4 GABONETAKO SUPERIGANDE BEREZIA

10:00 Saskibaloia eta futbol partidua herriko frontoian.

16:00 Bingo berezia eta domino txapelketa Kontzejuzarrean. 13

ABENDUAK 24 OLENTZERORI HARRERA BEROA

19:00 Abesbatzak eta herritarrek kalejira egingo dute. Ondoren, Pasealeku Jubilatuen Elkarateak gaztainak eta ardo beroa eskainiko ditu.

ABENDUAK 29

18:00 Txotxongilo ikuskizuna, Haurreskola ondoko aretoan.

19:30 ‘Nortasun Agiria’, Zuhaitz Gurrutxagaren bakarrizketa. Bolalekuan.

ABENDUAK 31

09:00 Urteko azken mendi irteera Arangixora. Autobus geltokian egin dute hitzordua.

18:00 Gabon Zaharretako Herri Krosa.

URTARRILAK 2

18:00 Karaokea Haurreskola ondoko aretoan.

URTARRILAK 11

Izotz pista irteera, LH3tik LH6ra arteko neska-mutilei zuzenduta.

ZALDIBAR

ABENDUAK 19

17:00 eta 17:30 Ipuin kontalaria: Mari Domingi, opariak, ipuinak eta komeriak liburutegi zaharrean; jarraian, Mari Domingiri eta Olentzerori idatzitako gutunen sarien zozketa.

ABENDUAK 22

17:00 Haur antzerkia: Su magikoaren lapurreta Olazar pilotalekuan.

ABENDUAK 24 BADATZ MARI DOMINGI ETA OLENTZERO HERRI EKIMENA

12:00 HARRERA Olazar kalean.

12:30 Ongi etorri jaialditxo San Martin plazan. Eskutitzak zuzenean emateko eta txupeteak lagatzeko aukera.

ABENDUAK 26 SAN ESTEBAN EGUNA

18:00 Eskolako pilotalekuan, taloa, txorizoa, urdaia eta gaztaina erreak.

ABENDUAK 27

Maribi Oroimenezko Futbol Txapelketa Solobarrian.

ABENDUAK 29 ETA 30

12:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:00 Umeen Gabonetako Parkea eskolako kiroldegian.

ABENDUAK 31

12:00 XI. San Silvestre lasterketa Udaletxeko plazatik.

16:00 V. Emakumeen Olazar pilota txapelketa (4 ½): Finala jarraian XXXVIII Olazar pilota txapelketako finalak.

URTARRILA 1 SANTAMARINAZARRERA

11:00 Talde argazkia tontorrean.

URTARRILA 5

18:00 ERREGE MAGOAK Olazar pilotalekuan.

ZORNOTZA

ABENDUAK 20

11:00 Bizarzuriri ongi etorria eta kontzertua, Zelaietan.

12:00 ‘Mailaz maila, bidea euskaraz’ Itziar Gamero ipuin kontalariagaz, liburutegian.

20:00 ‘Gauero Agur 2025’, Zelaietako kontzertu gelan.

20:00 ‘Sentsazioen paisaiak’ Zornotzako musika bandagaz, Zornotza Aretoan.

ABENDUAK 21

12:00 Herriko koralek ‘Mesias sarritan’, herritik zehar.

12:30 Gabon kantak, Larrako elizan.

13:45 Kalbarion topaketa.

ABENDUAK 24

09:00 Igoera Belatxikietara, Zelaieta parkean.

17:30 Olentzero eta Mari Domingi, Gudari-Nafarroa-Ibaizabal-San Migel-Gudari kaleetatik.

Ostean, Olentzerori eta Mari Domingiri harrera, Amorebieta IV frontoian.

ABENDUAK 26

09:00-14:00 / 16:30-21:00 Indoor Cup (+14 urte), Larrea kiroldegian.

ABENDUAK 28

08:00 XI klasiko rallya, Zubiondo plazan.

ABENDUAK 29

17:30 Anita Maravillasen ‘Jon Braun’, Zornotza Aretoan.

ABENDUAK 30

17:30 Anita Maravillasen ‘Kotondarrak’, Zornotza Aretoan.

ABENDUAK 31

09:00 Belatxikietara martxa, Zelaieta parkeko iturrian.

11:00 argazki erraldoia, Belatxikietako ermita aurrean.

16:30, San Silvestre lasterketa, Zelaieta parkean.

URTARRILAK 2

17:30 Anita Maravillasen ‘Andereño’, Zornotza Aretoan.

20:45 Pilota pro fest, Amorebieta IV frontoian.

URTARRILAK 3

17:30 Anita Maravillasen ‘Andereño’, Zornotza Aretoan.

12 orduko maratonia, Amorebieta IV. frontoian.

URTARRILAK 5

17:30 Erregeen kabalkada, Gudari-Nafarroa-Ibaizabal-San Miguel-Gudari kaleetan. Ostean, Zubiaur musika eskolako hip hop ikasleek harrera egingo diete Amorebieta IV frontoian.

ABENDUAK 22-30 ETA URTARRILAK 2-5

17:00 Gazte gabonak (Gazteentzako gabonetako esparrua), gaztetxokoan eta kontzertu gelan.

ABENDUAK 23, 26, 29, 30 ETA URTARRILAK 2-5

09:30-13:30 Neguleku irekiak.

ABENDUAK 26-30

11:00-14:00 / 17:00-20:00 Gabonetan jai Umeentzako Gabonetako Parkea.

ABENDUAK 26-30 ETA URTARRILAK 2-5

11:00 Txu-txu trena, Gudari kaleko autobus geltokian.

ABENDUAK 29, 30 ETA URTARRILAK 2

10:30-12:00 / 12:00-13:30 ‘Ekofashion week’.



OLENTZERO ETA MARI DOMINGI MAITEAK





OSASUN GIDA

**Podologia**
PSE: 214/06



OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIIRA EGINDAKO PLANTILAK

Heeriko Gudarlen kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

**Odontologia**
PSE: 26/22



HORTZ-KLINIKA
Konfiantza eta Hartz Klinika Durango

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordufuga:
Asteburuetatik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 636 18 30 30
Askatasun etorbi dea 15, 48200 Durango. Biskaila
www.clinicadentalviteri.com

**Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarría

ODONTOLOGIA OROKORRA •
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI •
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

**Fisioterapia**
PSE: 119/13



ZAINDUZ
Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Salo pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

**Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Naturopatia eta Homeopatia

Aurora Julià

HOMEOPATIA • NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218

Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus



**Psikologia**



gure
Hezkuntza zailtasunak

Hezkuntza zailtasunen
diagnostikoa eta esku-hartzea,
diskalkulian adituak.

 **613 038 933**
Andra Mari, 16 ID Durango

**Psikologia**



gure
Psikologia

Helduak-nerabeak-haurrak

- Zure buruan konfiantza sendotzeko •
- Estresa kudeatzeko •
- Zure harremanak hobetzeko •

ONLINE ETA AURREZ-AURRE

 **613 05 38 62**
Andra Mari, 16 ID Durango

**Optometria**
PSE: 162/13

NAIA
ZABALA
AIZUMENDI
11507 kol. 30.



keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEXUAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
- ORTO-K ETA MIOPIAKON KONTROLA

Arkatz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com

Aritz Maldonado ELORRIO

Irati Eguren ilustratzaileak (Durango, 1981) eta Olatz Mitxelenak hausnarketaz jositako liburua ondu dute: *Su txikian*. Udane da liburuko protagonista, eta aitona Martinen baserrira egiten duen bisita da istorioaren ardatza. Egile biek lotura estua dute baserriagaz, eta horrek "segituan baiezkoa ematera" bultzatu zituen. Liburuari lotuta, Olatz Salvador musikariak abestia egin du; Itziar Ugartek berbak ipini dizkio abestiari.

Zelakoa izan da 'Su txikian' sortzeko prozesua?

Orain urte bi inguru izan nuen proiektuaren berri, 1545 argitaletxearen eskutik; Olatz Mitxelena ere egon zen batzar horretan, eta segituan eman nuen baiezkoa. Baserri mundua eta aurreko belaunaldietakoek gauzak egiteko askoz ere modu pausatua zutela kontatzea izango zen istoriaren ardatza; horren garrantzia azpimarratzea zen euren nahia eta helburua. Istoriari dagokionez, Udane aitona Martinengana doa baserrira, zapatu batean. Aitonak baso bat du, etorkizun hobe bat izateko, eta Udane, beste belaunaldi batekoa izanda, ez du hori guztiz ulertzen; burua galderaz betetzen zaio: "Basoa, zergaitik?", "berak ikusiko ez badu, basoa zertarako?", "norentzat landatu du basoa?"... eta horrelakoak. Aitonagaz elkarriketa bat du eta bere buruari ere galdera mordoa egiten dio zurrumbilo horretan.

Hasieratik bat egin nuen istorioagaz, aita ere baserri mundutik datorrelako; beasaindarra da eta han galduta dagoen baserri batetik dator. Aitak basoagazko maitasuna erakutsi izan digu beti, basoa zaindu egin behar dela erakutsi digu, eta horregaz hazi gara. 'Honegaz ondo konektatzen dut', pentsatu nuen. Gainera, aurreko belaunaldiei zelanbait opari bat egitea zela ere pentsatu nuen.

Beraz, urte biko prozesua izan da.

Bai. Horrela adostu genuen, eta, egia esateko, oso zaindua sentitu naiz, bai idazlearen partetik eta baita argitaletxearen aldetik ere. Hori ez da oso ohikoa izaten. Denborak errespetatu ditugu. Epeei dagokienez, 2025eko Durangoko Azoka izan genuen buruan hasieran, baina denboragaz eta ganoraz egiteko gogoia genuen. Hartu-eman mordoa

"Segituan bat egin nuen liburuko istorioagaz"

IRATI EGUREN ILUSTRATZAILEA

LITERATURA Irati Egurenak 'Su txikian' liburua kaleratu du oraintsu, Olatz Mitxelenagaz batera; Mitxelenak idatzi egin du, eta Egurenak ilustratu; 1545 argitaletxeagaz kaleratu dute



Irati Eguren.

izan dugu, norabide bietan, eta elkarriketak-eta ere bai. Liburua bera ere, su txikian egin dugu (barrez).

Ez da ohikoena izaten horrela lan egitea.

Alde horretatik ere oso ondo konektatu nuen eurekin. Ni ere zurrumbilo honetatik irten guran nabil, gainera. Formakuntza artistikoan irakasle naiz, ordutegi murriztuan, irudigile legez ere lan egin ahal izateko, baina askotan sentitzen dut ez daukadala aukerarik bizitzako zurrumbilo honetan denari ganoraz erantzuteko. Eta proiektu hau bai izan da, zelanbait, 'bueno, honela bai, honela badut sortzeko gogoia'.

Zelan Mitxelenagaz lanean? Lehenengo lan egin duzue elkarregaz?

Sormen prozesurako, hasieran lehenengo testu bat jaso nuen, eta gero moldatuz joan da. Nik berari ilustrazioak erakutsi ahal berari ere sortu zaio aldaketak egiteko gogoia. Alde biko sorkuntza izan da, abiapuntua testua izan arren. Adibidez, Miren Amurizagaz *Bainera bete itsaso* egin nuenean, beste modu batera sortu genuen; elkarregaz momentu berean joan ginen

"IRUDIAK GUZTIZ NATURAL IRTETEN ZAIZKIT; OSO GUSTUKO DUT NATURA IRUDIKATZEA

forma ematen. Kasu honetan, lasaitasuna nabarmenduko nuke, egin ahal izateko lasaitasuna eta zabaltasuna; hau da, proposamenak erakutsi ahala, lan egiten jarraitzeko askatasuna ematen zidan.

Aurreko belaunaldiei oparia dela esan duzu. Era berean, datozen belaunaldientzat ere bada ekarpena.

Liburuaren aurkezpena egin genuenean, gaur egungo munduan promesak betetzeko zailtasunak edo zerbaiti konprometituak izateko dugin zailtasunak nabarmendu genituen, eta liburu honen helburua hori agerian uztea ere bada. Nik interpreta-zio hau egiten dut: aitonak zertarako behar du basoa berak ikusiko ez badu? Ba, denok etorkizun hobe bat izateko, ezta? Zuk ikusiko ez duzun arren, ondorengoentzat izango da, horretan sinesten duzulako. Herri gintzan ere ikusi daiteke hori, adibidez; haziak ipintzen dira etorkizun hobe baterako. Metafora hori liburu honetara eramaten ahalegindu gara. Olatz Salvadorrek eta Itziar Ugartek egindako kantan aipatzen da, zuhaitz bat hazten den moduan esku batzuk ere hazi daitezkeela. Udane zuhaitz ibiltari bat legez irudikatu dut, eta aitona ere paisaiaren parte da, jakinduriaz betetako pertsona. Fun-tsean, baso bat komunitate osasuntsu bat da, eta hori ere ikusten da bideoklipean; umeez zein nagusiek osatzen duten basoa. **Baserriagaz hartu-eman izateak erraztu egin du prozesua, ala erronka zaildu?**

Irudiak guztiz natural irten zaizkit. Gehiago esango nuke, natura irudikatzea oso gustuko dut. Elorrioren ere baserrian bizi naiz, eta nahi-non ikusten ditut zuhaitzak. Baserri familiatik nator, gainera, eta, beraz, erraztu egin duela esango nuke.

Posible da gaur egungo bizi erritmoagaz ezer su txikian egitea?

Beharrezkoa dela esango nuke, baina oso gaxa da, aldi berean. Internet, sare sozialak eta wifia izateak, adibidez, gauza asko erraztu ditu, baina esango nuke ez ditugula horiek ondo kudeatzen egunerokoa. *Input* eta estimuluz josit gaude, eta batzuetan beharrezkoa da horiek alde batera uztea; mugikorra, esaterako. Gehiago bizi behar ditutu natura eta errealtatea. Nik neuk horren falta igartzen dut.

Maluta zirkuaren XI. edizioa, ate joka

ZIRKUA Abenduaren 27an, 28an, eta 29an, Druangoko San Agustin kulturguneak Maluta Eguberri Zirkuaren edizio berri bat hartuko du; Ganso&Ciak aurkezle lana egingo dute; Italiako, Txinako eta Argentinako artistak arituko dira

A. M. DURANGO

Beste eguberri batzuek, Durangoko San Agustin kulturgunea zirku karpa bilakatuko da. Hain zuzen ere, bertan egingo dute Maluta Eguberri Zirkuaren edizio berri bat, abenduaren 27tik 29ra; lau emanaldi izango dira guztira, 19:00etan (28an emanaldi bi egingo dituzte; bata 12:30ean, eta bestea arratsaldean). Ganso&Ciak konpainiak ekimen arrakastatsu hau antolatzen duen XI. edizioa da aurtengoa, eta eurek egingo dute aurkezle lana, beti legez. Txinatik, Italiatik, Argentinatik eta Nafarroatik datozen artista sorta egongo dira eurekin. Maluta jaialdira doazen bisitariek FUMEzing, Dúo Rossoneve, Hilary, Dama Beltza eta Kaxpiren ikuskizunez gozatu ahal izango dute. Urtero gogoratzen duten moduan, artisten nahasketak emanaldi "magikoa, bakarra eta errepikaezina" sortzen du. "Sa-



Dúo Rossoneve. DÚO ROSSONEVE

rerik eta leihorik barik, baina sekulako talentuagaz, munduko txoko desberdinetatik etorritako artistak izango ditugu, trebezia paregabea, birtuosismoa eta poesia uztartzen", azaldu dute konpainiako kideek.

Ekitaldirako sarrerak San Agustin kulturgunearen atarian erosi daitezke. Antolatzaileek "ez lokartzeko" deia egin diete bisitariei; izan ere, urtero gertatzen da jendea kalean sarrerarik barik.



Dena. DENA

Dena eta Ateri taldeak, Ateneoren urtea amaitzeko

MUSIKA Dena eta Ateri taldeek kontzertua emango dute Elorriko Ateneoan, abenduaren 27an, 22:00etan

A. M. ELORRIO

Dena hirukote ondarroarrak euren hirugarren lana den *Anabasa* aurkezteko biragaz jarraitzen du. Hurrengo geltokia inguruan izango da, Elorriko Ateneoan, hain zuzen ere. Martxoan ekin zioten lan berriaren aurkezpen birari, eta hirukoteak dozenaka kontzertu eman ditu harrezkero; besteak beste, Bilboko Kafe Antzokian, Gernikako Iparragirre aretoan eta Tolosako Bonberenean. 2018an sortu zuten taldea, eta orduetik *Ezer sentitze*ko (2020), *Zure Mugadun Hutsune* (2022, Bonberenea ekintzak)

eta *Anabasa* (2025, Bonberenea ekintzak) kaleratu dituzte. Unai Aretxabaletak taldea utzi eta gero, gaur egun Beñat Eizagirrek, Xabat Ituarte eta Beñat Bidegainek osatzen dute taldea.

Eurekin batera, Aretxabale-tako Ateri boskoteak joko du kontzertuan. Emanaldi bietan rock eta hardcore doinu sentikorrak nagusituko dira. 22:00etan zabalduko dituzte ateak, eta sarrera 8 euro izango da. Bertan erosi daiteke. Festa borobiltzeko, kontzertuen ondoren musika-jartzaileak egongo dira gunea girotzen.



GAI LIBREAN

IGOR GALARZA INTXAUSTI KAZETARIA

Errua

Bazen behin pertsona bat (ipuinetan legez hasteak grazia egiten dit) esaten zuena humanitatearen denboraleroan jazo diren gertaerei, handienetatik eta txikienetaraino (ogia erostea, argazki batzuk almazenean edukitzea, demagun) ezin diegula 'gauza' deitu. "Gauzak ditut egiteke"; zer da "gauza" hori? Zer ezkutatzen du hori dioenak? Pelikuletako hiltzaileak baino susmagarriagoak bihurtzen dira. Batzuetan dugu kuxkuxero senagatik bada ere, beste batzuetan egoera ulertzeko beharra du gizakiak. Zerbait gertatzen denean, horren eragilea, zergatia edota erruduna zer edo nor den jakiteko beharra legez: errealitatea kontrolatu gura dugu, baita errealitatean zer kontrolatu ez dagoenean ere.

Hainbat jende mota dago: jende arrazionala, ondorioari kausa batzuk jartzen dizkiona (jartzen jakin ala ez); jende irrazionala, kausak zeintzuk diren ulertzen ez duena eta inpuitsiboki ekiten duena; eta pertsonongan existitzen dira momentu 'erruzionalak',

guztiari kausak edo argumentuak ipini beharrean, errudunak jartzen hasten garen une horiek. Beharbada patua ere tartean dago edo tartean sartzen dugu, baina behar dugu norbaitengan, zeozertan jarri jazo-takoaren kausa.

Xalbadorrek 1967ko Euskal Herriko Txapelketan ezin hobeto erabili zuen "errua" berba: "*Zuek ez bazerate kontentu, errua ez daukat ez nik*". 'Errua' berba abesterakoan, igarrian zuen bertan bizi izan zuena, Anoetako txistuak eta abarrak, merezi ez zuen giroa.

"ZU ERE ZERGATIA BILATZEKO BEHARRAREN BEHARRAZ, NORAEZEAN ZABILTZA"

Bertso hura abestean jasotako txalo zaparradak argi utzi zien bai Xalbadorri bai Anoetan bildutako entzuleei, urepeldarraren bertsoak ulertu ez izana ez zela Xalbadorren errua, ezta beraia ere: badakigu norena edo zerena zen errua. Baina horrek euskaldunen artean txarto ulertuak eta haserreak eragin zituen.

Eta egun, zu ere zergatia bilatzeko beharraren beharraz, noraezean zabilta, badakizulako, edo uste duzulako, zeozer badagoela gertatu zaizunaren atzean. Egunari minutuak kendu dizkiozu horretan pentsatzen, une batez kristau, ateo edo dena delako erlijioa egin zara, konturatu barik. Hartu dituzun erabakiak, egunotan erabili dituzun berbak eta ekintzak birneurtzen eman dituzu minutu horiek. Buruan ez zaizu kabitzen, ordea, gauzak, susmoz eta galdera ikurrez inguratutako gauza horiek, batzuetan, gertatu egiten direla. Besterik barik.

Joseba Derteano ABADIÑO

Iker Unzueta (Abadiño, 1998) talde askotan ibilitakoa da, oraindino gaztea den arren. CD Lugon arin integratu dela eta oso gustura dabilela dio.

Asko jokatzen zabilta. Zer esan gura du zuretzat, helduberria izanda, taldearen dinamikan hain garrantzitsua izateak?

Eskertzekoa eta pozik egotekoa da. Entrenatzaileak taldera batzeko deitu zidanean, esan zidan talderako inportantea izan nintekeela, gauzak ondo eginez gero. Hasieran ez nintzen gustura egon nire errendimenduagaz, baina, zorionez, esango nuke gauzak ondo irteten dabiltzala apurka-apurka, eta entrenatzaileak jokalaririk batek behar duen konfiantza hori eman dit.

Zelan sentitzen zara taldean? Ondo integratu zara?

Bai. Denboraldiaurrean nahiko berandu heldu nintzen taldera eta lehenengo egunetik bertatik oso ondo integratu naiz. Oso talde batua dugu, eta giro sanoa. Egia esanda, oso pozik nago. Nigaz batera beste hiru euskaldun dabilta taldean: Jon Merino gipuzkoarra eta Ibaider Garriz eta Santi Samanes nafarrak. Azken honek Logroñes taldean kointziditu nuen. Eza gutzen nuen aurretik.

Bost gol daramatzazu. Eurretari bat Pontevedraren kontrako derbian lortu zenuen. Beharbada horixe ba bereziena?

Derbi batean gol bat sartzen duzunean, eta gainera golak taldeak hiru puntuak batzeko balio duenean, askoz bereziagoa da. Bai, horixe da orain arteko golik bereziena, kontuan hartuta aurrelari batentzat gol guztiak direla bereziak.

Zure ibilidean hainbat tokitako derbiak jokatu dituzu. Lugoren eta Pontevedraren artekoa derbi beroa da?

Derbi guztietan dago lehia, baina ez zidan derbi sutsu baten sentazioa utzi. Beste derbi batzuekin alderatuta, esan gura dut; esaterako, Huescaren eta Zaragozaren artekoa. Derbi horretan lehia handia dago.

Gol bat penaltiz sartu duzu, penaltiak jaurtitzeko duzun dinamika berezi horregaz: baloira abiada txikian hurreratu, eskuin hankagaz salto egin, ezkerra lurrean pausatu eta geldian jaurti. Nondik dator dinamika hori?

Orain dela lau-bost urte bideo bat ikusi nuen, jokalaririk batek penaltia horrela jaurtitzen. Entre-



Iker Unzueta, CD Lugo taldeagaz sartutako gol bat ospatzen. CD LUGO

"Taldeari gol askogaz laguntzea eskatzen diot urte berriari"

IKER UNZUETA ARREGI CD LUGO TALDEKO FUTBOL JOKALARIA

FUTBOLA Aurrelari abadiñarra denboraldi honetan batu da Lehenengo RFEF Mailan dabilen CD Lugo taldera. Denboraldiaurrera berandu heldu arren, arin integratu da. Orain arte bost gol sartu ditu eta geroago eta gehiago jokatzen dabil

namenduetan horrela botatzen hasi nintzen, kuriositatez. Eta sartu egiten nituen, harrezkeror horrela jarraitu dut. Atezainari begiratzea da gakoa, eta norantza mugitzen den ikustea, baloia beste aldera bidaltzeko.

Orain aste batzuk, futbol federazioak zuri buruzko bideo bat argitaratu zuen sareetan. "Ez du birritan pentsatzen" zen goiburua, Lehen Federazio Mailan sartutako 16 golak lehenengo ikutuan sartu dituzula azpimarratzeko.

Bai, ikusi nuen. Orain lehenengo ikutuan sartzen nabil gol asko. Aukera dudanean errematatzen ahalegintzen naiz. Gerora, akaso, bigarren edo hirugarrenean hasiko naiz sartzen. Batek daki! Baina, tira,

baloia barrura doan bitartean, denok pozik!

Nire gusturako, zure golik onena lehenengo ikutuan antitesia da, 2023/2024 denboraldian Amorebieta-Tagaz Levanteren kontra sartu zenuena. Gogoratzen duzu?

Gogoratuko ez dut, ba!

Baloia zelai erdian jaso, aurkari bati iskin egin, area barruraino korrikaldia egin eta atezainari baloia azpitik gurutzatu. Zure golik onena ez bada, onenarikoa izan daiteke.

Bai, dudarik barik, onenarikoa seguru! Gainera, 84. minutu inguruan zelairatu nintzen, eta handik hiru bat minutura heldu zen gola. Partidua amaitzeaz zegoen eta golak taldeari garaipena emateko balio izan zuen.

Laster 2026an sartuko gara. Zer eskatzen diozu urte berriari?

Talde ikuspegitik ea pausotxo bat aurrera ematen dugun, dinamika on batean sartzen garen eta denboraldiko azken txanpan goian borrokan gabilzan. Une honetan 12. postuan gaude eta igoerako kanporaketan sartzea dugu helburu, jakinda ere oso talde onak daudela maila honetan. Arlo pertsonalean, taldeari gol asko sartuta laguntzea eskatzen diot urte berriari.



Juniorren aurtengo taldea. Amaia Garitano, goian, ezkerrean. ANBOTOPEKO

Nesken taldea bueltan da Anbotopeko klubean

SASKIBALOIA Anbotopeko klubak neska juniorren taldea du denboraldi honetan, eta, hamarkada biren ondoren, emakumeen taldea martxan ipini du berriro. Azken taldean jokalaria izandako Amaia Garitano da talde berriko entrenatzaileetarikoa

J.D. DURANGO

Aspaldiko partez, Anbotopekok emakumeen taldea du aurtur. Junior mailako hamabi bat jokalarik osatzen dute taldea, eta jokatzeko lekuri izan ez zuten jokalarien beharrianari erantzuteko sortu da. Herri-

tar talde batek Anbotopekora jo zuen taldea sortzeko proposamenagaz, eta honek atea parez pare zabaldu die gustuko duten kirolean jarraitzeko aukera izan dezaten. Aurrera begira, juniorrei eta adin horretatik gorako neskei saski-

baloian aritzeko uneak eta guneak eskaintzen jarraitzea dute helburu nagusi.

Hiru entrenatzaile dituzte taldean: Amaia Garitano, Amara Zabaleta eta Alison Solis. Garitano Anbotopekok izan zuen emakumeen taldeko jokalaria

izan zen sasoi batean, eta gus-tura dabilela dio. "Gure jokalariai saskibaloiaz gozatzen ikus-tea da saririk handiena niretzat", esan du. Anbotopekon, gainera, askatasuna aurkitu dute taldea komeni den moduan eramateko. "Hemen ez dago beste klub batzuen lehiakortasun puntu hori. Jakina, hemen ere ehuneko ehuna ematea da helburua, baina, tira, azterketak direla-eta entrenamenduren batera etorri ezin badira, ez da ezer ere gertatzen. Esango nuke gehiegizko presio hori ez izateak jokalariei lasaitasuna ematen dietela eta pozik dabilatzala", azaldu du Garitanok.

Lehenengo denboraldiko erronketarikoa bat kantxak lortzea izan da, entrenatzeko zein jokatzeko. Azkenean, Fray Juan Zumarraga institutuan eta Kurutzia Ikastolan aurkitu dute bila zebiltzana. Etxeko partiduak institutuan jokatzen dituzte, baina ez luzera begira. Datorren denboraldirako beste 'etxe' bat bilatu beharko dute, federazioaren kriterio eskakizunei erantzuteko.

Bizkaiko ligan

Gaur egun Bizkaiko Ligan jokatzen dabilatza. Lehenengo fasea B multzoko hirugarren tokian amaitu dute, bost garaipenagaz. 2026an bigarren faseari ekingo diote. Urtarrilaren 11n Bilbon jokatuko dute, Patronato taldearen aurka.

Olazar pilota txapelketa azken txanpan sartu da

PILOTA Abenduaren 31n hiru final jokatuko dira: lau eta erdiaren barruko bi eta binakakoa

J.D. ZALDIBAR

Etorkizuneko Olazar Pilota Txapelketa azken txanpan sartuta dago. Hileetako kanporaketan ondoren, abenduaren 31ko arratsaldean erabakiko dira aurtengo txapelkunak nortzuk diren. Gizonen lau eta erdiaren barruan, Muruak eta Cestauk neurtuko dituzte indarrak. Muruak Faben Ituarte kanporatu zuen finalerdietan. Emakumeen lau eta erdiko txapela janzteko hautagai bat Enara Gaminde da, 18 urteko laukiztarra. Bere aurkaria bart gaueko jardunaldian erabaki zen, Zabaletaren eta Salsamendiren arteko partiduan (emaila anboto.org atarian). Binakakoan Zubizarreta eta Apeztegia txapelaren lehian arituko dira. Euren aurkariak atzo erabaki ziren, Karregal-Landa eta Apeztegia-Santesteban bikoteen artean. Landak Elorz pilotariaren ordez jokatuko dute.



JOKALDIA

ALFONSO ARROIO MONASTERIO KIROL KAZETARIA

Farsi Il Mazzo

Urriaren 12a, Paris-Tours klasikoa, denboraldiko azken lasterketa eta emanaldia. Hamar hilabeteko sasoiari amaiera emateko unea izan zen eta ondoren izan genuen berriak nostalgiaz eta penaz bete ninduen. Stelvio gainetik, eta, nola ez, ziklista jantzita, jakinarazi zigun inork ez zekiena baina uneraren batean espero genuena. Modu dotorean (bera den modukoa) egin zuen, bertotan. Hori baita bera, bertozale amorratua. Zur eta lur utzi gintuen, nahiz eta unea helduko zela jakitun izan. Helmugara iritsi dela, arrastoa pasa eta mikrofono baten aurrean ez duela gehiago pedalkadarik emango. Hogeita hamar urteko ibilbideari bukaera eman dio. Asko gara bere emanaldiekin hazi garenak; euskarajator eta aberatsarekin. Ziklismo emanaldiak gorenera, gailurrera, eraman ditu. Prestigioa eta ospea eman die euskaraz egindako emanaldiei. Euskal Herrikan kanpo erreferente bihurtu du euskarazko telebista eta asko dira gure hizkuntza ulertu ez, eta saioak jarraitzen dituztenak. Hizkera gozoa, gure hizkuntzarekiko zo-

"ZER ESANGO DIZUET, HUTSUNEA SENTITZEN DUT ETA ORAINDIK DENBORALDIA EZ DA HASI. BERE FALTA IGARRIKO DUT"

"ASKO GARA BERE EMANALDIEKIN HAZI GARENAK. ZIKLISMO EMANALDIK GORENERA ERAMAN DITU"

rroztasuna, eta, batez ere, jakituria. Hiru ezaugarri horiek izan ditu bere jardunak. Ohorea izan da azken emanaldiaren bidaide izatea; plazera izan da aldamean lan egitea. Maisu, eredu, asko eman dio euskarari, ziklismoari eta bere terminologiari. Langile petoa, egunero-egunero elikatzen izan du bere datu base pertsonala. Gorputzaren beste atal bat bailitzan, ez dute sekula ahaztuko ordenagailua izorratu zitzaion eguna. Bilutsik balego bezala sentitu zen eta gure taldeburuari laguntzen saiatu ginen (edozein ezkutari bezala). Orduak igaro ditugu aldarte onean. Bereziak izan dira emanaldiak hasi orduko hartutako kafeak, baita lasterketa erdian dastatutakoak ere. Zer esango dizuet, hutsunea sentitzen dut eta oraindik denboraldia ez da hasi. Bere falta igarriko dut. Gure herriaren eta euskararen inguruko gure gogoetak ez ditut ahaztuko; aberasgarriak izan dira oso. Etapa amaituta, onena opa diot bidaia honetan. 'Ez da Giro' saioa orroarekin agurtuko dut: farsi il mazzo, Fermin.

GUARDIAKO BOTIKAK

ABENDUAK 19, BARIKUA

Bazan, Uribarri 5 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

ABENDUAK 20, ZAPATUA

De Diego, Intxaurrondo 22. - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

ABENDUAK 21, DOMEKA

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

ABENDUAK 22, ASTELEHENA

Mugica, Andra Maria 9 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

ABENDUAK 23, MARTITZENA

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

ABENDUAK 24, EGUAZTENA

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

ABENDUAK 25, EGUENA

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK

**Ametz**

Ametz, artista! Urtegunien zorion agurrik barik geratu hintzan, baina oinguen bai, laguntxo eta guzti. Ondo zaintzen dok Ekin? Ezagun dok baietz. Ba, segidik holan. Hi haz hi tipue!

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU** gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurraekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak

Etorri zaitez Anbotoren ordezkarietara edo deitu 946 232 523 telefonora.

**GOZATU GOZOTEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO

Tel.: 946 201 663

gozatudurango@gmail.com

☎ 661 40 14 00

f Gozatu Gozotegia

📧 gozatugozotegia

Smurfit Westrock
Central Forestal

+55 urte Euskadiko pinudiak zaintzen

Smurfit Westrock
Nervión

Etorkizun hobe baterako enbalaje iraunkorrak

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA

ABENDUAK **26**
12:00

Sarrera iren-ematearekin

"IPUIN PORRUSALDA"
3 urteik gora (3-5 urtetakoa lagundurik)

Iurreta
Euzaleko Urdala
HERRI BILJOTERA

INMOBILIARIAK



F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



C.E.E.= G 210.000 €

DURANGO 77 m2. 2logela (lehen 3) armairu handiekin, sukaldea eta egongela-jangela. Terraza. Igogailua.



C.E.E. = F 195.000 €

DURANGO 5 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Bizitzen sartzeko moduan.



C.E.E = E 140.000 €

MATIENA 68m2. 3 logela, komuna eta sukalde-egongela. Terraza. Trastelekua.



C.E.E= B. 372.000 €

J. OLAZARAN ERDI-BERRIA 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua.



C.E.E.= F 470.000 €

BASERRIA BERRIZTATUA. 436m2. 3 Solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. Garaje itxia. 4 hektareako lursaila.



Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK SALGAI BERRIZ

Duplexa salgai. 4 logela, sukaldea, egongela, 3 komun eta 3 bainugela. garajea eta trastelekua.

DURANGO
Goienkalea: 65 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia.
Kurutziaga: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatzeko.
Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.
Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.
Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.
Goienkalea: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna.

ATXONDO

Atxondo: 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi. Igogailua. Gasa.
Atxondo: 3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

LURSAILAK SALGAI

Urrutxua: 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.

BASERRIAK ETA AXALEAK SALGAI

Muxika: Urrutxua: 90.000 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria. **90.000 €.**
Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.
Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.
Atxondo: Marzana auzoan. 7.500 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria.
Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIURIAN ABADINO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

DURANGO
Ermodo kalean. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIURIAN


Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.
Elorrio: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI BERRIZ

Berriz: Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.



Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



C.E.E: E. 175.000 €

DURANGO Anboto kalea: 70 m2. Egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du. Iparraldea. Leku onen kokatuta. Zerbitzuguneak. Berrikuntzak behar ditu. Igogailua. ITE-a pasatutakoa.



C.E.E.=E 164.000 €

ABADINO San Trokaz: 33,65 m2. Egongela-sukaldea-jangela, egongela horma-armairuekin eta komuna dutexarekin. 122,20 m2-ko lursaila. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea) Argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak gertu eta aparkatzeko erraztasuna.



C. E. E.: BIDEAN. 264.000 €

MATIENA Trañabarren: 94,8m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela (horietako bik horma-armairuak dituzte) komuna, bainugela eta despentsa handia leihoarekin. Toldo automatikodun balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du.. 14,25 m2-ko ganbara. Aparteko garaje-partzela erosteko aukerarekin



C. E. E.: G. 187.000 €

BERRIZ Agirre Lehendakariaen pasealekua: 85m2. Halla, egongela, sukalde jantzia handia, 3 logela eta komuna berriztatua dutexarekin. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialde-mendebaldea) Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Teilatua eta fatxada eraberritua (SATE) eta duela gutxi instalatu den igogailua du.



C.E.E.E. 190.000 €

BERRIZ Okango auzoa: Bi familiako etxebizitza (eskuinaldea). 180 m2. Beheko solairua, lehen solairua eta teilatupea. 25 m2-ko lorategia. Egongela, sukaldea, 3 logela, komuna, bainugela eta 40 m2-ko espazio garbia. Egitura egoera onean. Bizitzen sartzeko prest. Berriz eta Zaldibar artean dago. Garaje itxia aukeran.



Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

BERRIAK DURANGO

E.Bustintza Kirikiño kalea: 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. **150.000 € E.E.Z=G**

DURANGO

Andra Mari: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. **240.000 € / E.E:Z=E** igogailu obra erosleen gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero **270.000 €.**
Antso Eztegiz: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta komuna. Balkoia. **160.000 € / E.E.Z=F**
Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**
Juan Antonio Abasolo: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Konpontzeko. **170.000 €/ E.E.Z=F**
Komentu kalea: 3 logela, egongela, sukaldea, sukalondoa eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Igogailua. garaje itxia aukeran. **280.000 € / E.E.Z=E**

ABADINO

Dendarikoa: Zaharbertitzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**
Eskolako: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 325.000 € ORAIN 300.000 € / E.E.Z=G**

ATXONDO

Artekaleara, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. **300.000 €.**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitzeo baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**
Eitua: Berreraikitzeo baserria lursailarekin. **LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 €**

GARAI

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.
Zubiaurre: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **198.000 € / E.E.Z=F**

GARAJEAK SALGAI /ALOKATZEKO

DURANGON SALGAI

Alluitz: Garaje itxia. **24.000 €.**
Kurutziaga: garajea. **18.000 €.**
Kurutziaga: Garaje itxia **22.000 €.**
Madalenoste: Garaje itxia eta trastelekua. **42.000 €.**
Plateruen plaza: Garajea **25.000 €.**

DURANGON ALOKAGAI

Muruetatorre: Garajea. **75 € / hilean.**
Antso Eztegiz: **45 € / hilean.** Motorrentzat egokia. Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI ALOKATZEKO DURANGON SALGAI

Komentu kalea: 30m2-ko lokala guztiz berrituta. **65.000 € / E.E:Z=F**
Aliendeta: 285 m2-ko pabilioia. **250.000 €.**
IURRETA
Zubiaurre: 11m2-ko lokala. **20.000 €** negoziagarriak.
Padureta: 240 m2-ko pabilioia. Salgai: **370.000 €**



LAU-HORTZA

MERTXE MUGIKA
BALANZATEGI

Abenduko oasia

Nire aburuz, abendua da euskaldunon hilea. Abenduaren 3an ospatzen da Euskararen Nazioarteko Eguna. Abenduaren zubi luzean antolatzen da Durangoko Azoka. Beraz, abenduaren lehen hamar egunetan aparretan bizi gara euskaldunok: euskarazko ekin-tzak programatzen dira toki guztietan, euskal kulturgintza dago denon ahotan, irratian eta telebistan euskarak zabal-tzen ditu albistegiak, ...

Baina errealitatea bestelakoa da, zeren eta egun horiek igaro eta gero zaharrak berri jarraitzen dugu. Batetik, hizkuntza eskakizunen auziak okerrera egingo du. Konstituzionalera jotzeko bidean omen dago, eta Jaurlearitzak berak ere salatu du afera, oso larria dela esanez; izan ere, sektore publikoan euskara normalizatzeko sistema guztia jar dezake kolokan bide horrek. Bestetik, euskararen inposizioaren "mantra" inoiz baino indartsuago dabil gure inguruan, nahiz eta argi dagoen ez dela egia. Inposatu da erdal-dun elebazarrek egiten digutena: 30 euskaldun dauden lekuan erdaldun bakarria izanda ere, gaztelaniaz esplikatzeak exijitu. Eta, tartean, jarraituko dute gure agintariekin euskaratik urruti daudenak "seduzitu" behar ditugula esaten. Bada, segi dezagun horrela, aprobe-txatu abenduko oasia, gero, urte osoan, gaztelaniari bide eman beharko diogu eta!

AKUILUA

"Txakolina gaztagaz gustatzen zait gehien"

ROBERTO SARRIUGARTE IRAETA ARDOETAN ADITUA

Bizkaiko Txakolin dastatzea gidatuko du Atxondon, Berbalagunen eskutik. Txakolinak izandako garapena hartuko du berbagai, erabilera anitzeko gelan, 19:00etan

Aitziber Basauri DURANGO

Roberto Sarriugarte (Zaldibar, 1962) Bizkaiko Txakolinaren Dastatze Batzordeko kidea da. Bere berbetan, txakolin on batek orekatua izan behar du, eta ez dator bat garestia dela diotenekin, produktua aurrera ateratzeak lan handia eskatzen duelako.

Zelan zuzenduko duzu dastatzea?

Hasteko, Bizkaiko Txakolinaren historia azalduko dut labur-labur, eta, ondoren, txakolin motak egiteko erabiltzen diren mahats motak aipatuko ditut. Askok uste dute txakolin zuria baino ez dagoela, baina gorria eta beltza ere badaude; txakolin bereziak daude, apardunak... Amaitzeko, hiru txakolin desberdin dastatuko ditugu.

Munduan bakarra da txakolina.

Zerk liluritzen zaitu txakolinetik?

Geurea dela. Ezaugarri propioak dituzten ardoak dira Getariako, Bizkaiko eta Arabako txakolina, gureak diren *Hondarribi zuria* eta *Hondarribi beltza* mahats-gaz eginak. Dugun klimak batiere laguntzen ez duen arren, hemen egindako ardoa da, eta urteen poderioz maitemindu egin nau.

Etorkizuna duen ardoa dela diote.



"AZKEN URTEETAN ASKO GARATU DA TXAKOLINA, ANIZTASUNARI DAGOKIONEZ"

Hala da. 1994an sortu zen Bizkaiko Txakolina sor-marka; gaztea da oraindino. Azken urteetan asko garatu da txakolina, aniztasunari dagokionez. Lehen, poteorako baino ez zen, eta gaur egun gastronomikoki ere beste balio bat hartu du. Gazte jendeak

erreleboa hartu du upategietan, eta gauza berriak sortzeko gogoia ikusten da. Lehia oso handia da, gainera. Txakolin botila baten atzean lan handia dago.

Beraz, asko zabaldu da eskaintza.

Bai, geroago eta txakolin gehiago dago ostalaritzan. Hala ere, oraindino ere txakolin bat eskatuz gero, askotan "Gipuzkoa-koa, ezta?" esaten dizute. Apur bat hasarratu ere egiten naiz horregaz. Lehenengo aukera lez, bertokoa eskaini beharko luke-te. Baina Bizkaiko leku batzuetan ez dago Bizkaiko Txakolinik. **Getariako Txakolinak du osperik gehien, baina zuk gurago duzu Bizkaikoa.**

Bai. Baina Getariako Txakolin onak ere disfrutatu ditut! Lekuan lekukoa hartzea gustatzen zait. Gurago dut Bizkaiko estila, baina Getariako Txakolin onak daude. Guztiz desberdinak dira; Getariakoa apartsuagoa da, orokorrean. Esango nuke egiteko moduak direla desberdinak. Edari apartsuen artean, gurago dut cava edo xanpain on bat.

Nogaz hartuko zenuke txakolin bat?

Joseba Sarrionandiagaz, adibidez. Poesiazalea izanda, Xabier Letegaz edo Angel Gonzalezegaz ere bai, bizirik baleude.

Txakolina edateko unerik onena?

Maite dituzun lagunekin zein familiagaz, edozein une da ona. Bakarrik nagoela ere gozatu izan dut txakolin on batez.

Zegaz uztartzen da ondoen?

Txakolin motaren arabera da. Azken urteetan sortutako Bizkaiko Txakolin bereziak gastronomikoagoak dira; arrainagaz, mariskoagaz, paella on batez... ondo uztartzen dira. Niri zapore sendoko gaztagaz gustatzen zait gehien.

PABILIOIA SALGAI

lurretan, Mercadona ondoan

1.190m²

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 94.681.66.73
Mug.: 649 40 26 23
zarateylexpe.com

